

# ARGIA

HAURDUNALDI SUBROGATUA

## *Nola eman konponbidea fenomeno globalizatu honi?*

28-32.orrialdeak



'Aingeruak eta neskameak' liburuaz  
June Fernandezekin elkarrizketa



**Argako erregina  
berpiztu duen  
artista**

14 | ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN



**Udalak  
agindutakoa,  
udalak trabatu**

24 | GASTEIZ ANTZOKIA



**Behe Banda  
sortu dute  
hainbat gaztek**

46 | LITERATURA

# 2.873 | 2024/06/02 | 4,00 €



DATORREN ASTEKO  ARGIA<sub>n...</sub>

TSUNAMI AUZIKO ERBESTERATU KATALANAK



RUBEN WAGENSBERG  
ETA JESÚS RODRÍGUEZ

SUITZAN ELKARRIZKETATU DITUGU



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: PAULA ESTEVEZ

## Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | MALORES ETXEBERRIA
- 21 | HIRUKI LARROXA
- 21 | ARANTZA GUTIÉRREZ
- 22 | NEKANE TXAPARTEGI

## Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | DENBORAREN MAKINA
- 45 | ARGIA KOMUNITATEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



### 36 | PIRINIOETAKO OIHANAK, ABIOIAK HEGALARAZTEKO ERREGAI

Biarnoko Laq herrian egitekotan diren proiektu ustez ekologikoa aztertu du Jenofa Berhokoirgoinek. Hiru gune industrial lituzke: hidrogenoa ekoizteko fabrika erraldoi bat, eta hegazkin eta itsasontzientzat erregai "berdeak" ekoizteko lantegi bana. 14.000 hektarea desagertuko liriteke lehen bost urteetan.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**Marshall uharteetan, elkarlana dute itsasoaren igoerari egokitzeko planen oinarrian**

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | ESTEFANÍA DE PAZ

**"Hildakoak erreskatatzera eta berpiztera etorri naizela sentitzen dut"**

Reyes Ilintxeta

24 | EUSKARA | GASTEIZ ANTZOKIA

**Arnasgunea arnasestuka**

Ruben Sánchez

28 | HAURDUNALDI SUBROGATUA | JUNE FERNANDEZ

**"Esloganetarako joera dago eta argi-itzalak aztertzeke aukera gutxi"**

Onintza Irureta

33 | INGURUMENA | POLTSA KONPOSTAGARRIAK

**Ingurumenerako mesede ala kalte?**

Garazi Zabaleta

46 | KULTURA | BEHE BANDA SORTU DA

**Literaturan behetik hasteko leku bat**

Larraitx Fagundez


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Jabetza**  
Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

**Erredakzioa**  
Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,  
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,  
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,  
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,  
Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.  
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

**Diseinua**  
Maitane Gartzandia

**Argazkilaria**  
Dani Blanco

**Produkzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.

**Administrazioa**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

**Salmenta**  
Karlos Olasolo, Pello Basurto

**Banaketa**  
Olatz Korta

**Azoka**  
Mikel Olabide

**Idazkaritza**  
Aloña Soruluz, Bego Zuza

**Web garapena**  
Asier Iturralde

**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua:** SS 837-2012  
**ISSN:** 0213-909X  
**Batzorde parekidea:** 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

**Posta elektronikoa**  
komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

**Telefonia**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

**Nafarroa**  
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da  
testuentzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko  
bazkide da ARGIA





# Normaltasuna

Umeak barrez, patxada ederrean, bide mozketa baten erdian. Ohituta daude krisitik krisira bizitzera. Ez da albiste. Indarkeria maila igotzen denean telebistan agertzen da Haiti. Tarte batez. Biolentziak saltzen du. Pixka bat, bederen. Baina muturreko pobrezia eta ustelkeria endemikoak ez dira ikusgarriak, urakanak edo lurrikarak bai. Bien bitartean, aginte politikorik ez da, talde armatuen legea gailendu da, hildakoak eta desplazatuak milaka. Larrialdi egoera aspaldi ezarrita dago indarkeria giro betean. Eta "nazioarteko komunitatea" delakoaren konponbidea, ohikoa izan da: suari su. Porrot egin duen estatu neokolonial baten egiturazko arazoan aurrean, milaka gizon armatu bidaliko dituzte Haitira, hainbat herrialdek osatutako Polizia bat, Keniak gidatua eta AEBek hauspotua. Hori ere normaltasuna da. Haitiko historiari erreparatuta, atzerriko esku-hartzeko inperialista izan baita krisi-kate etengabea hauspotu duena.

📍 R. ESPINOSA - AP

📷 AXIER LOPEZ







# Lurralde-hitzarmenak lehenetsi ditu Espainiak

URKO APAOLAZA AVILA

**H**ego Euskal Herrian negoziatzen diren itunek babes eta berme gehiago izango dute hemendik aurrera, Espainiako Estatuko enplegatuak, Espainiako Gobernuak EAJrekin akordioa egin ostean. Sindikatuek neurria txalotu dute eta gogorarazi dute langile borrokaren ondorio dela.

Espainiako Ministroen kontseiluak onartu du autonomia erkidegoetako eta probintzietako lan-hitzarmenak lehenetsia Estatuko enplegatuak. Hala, euskal sindikatuen eskaera historiko bati bidea ireki dio Pedro Sánchezen gobernuak, EAJrekin akordioa egin ostean.

Iazko abenduan egin zuten akordioa EAJk eta PSOEek, Sánchezen inbestidurarako negoziazioen barruan, baina Espainiako Kongresuak atzera bota zuen, subsidioaren dekretuarekin batera Podemos aurka agertu baitzen. Orain, alderdi moreak subsidioaren erreforma berria balekotzat emanda, lan-hitzarmenena ere onartuko dute ia seguru Kongresuan. Hala ere, neurria berehala sartu da indarrean.

Hego Euskal Herrian sinatzen diren lan-hitzarmenek Estatuko enplegatuak baino baldintza hobekiago jasotzen dituzte, soldata eta lanaldien arloan batez ere, eta sindikatuen aldarrikapen historikoa izan da horien prebalentzia.

ELAk esan du Espainiako Gobernuak euskal lan-hitzarmenak lehenetsia "urteetan euskal langileek egindako borroken ondorioa" dela, eta duela bi urte gre-

ba orokorrera jotzeko prest agertu zela gogorarazi du: "Gaurko erabakia ez dago ulertzerik orduko jarrerarik gabe", azaldu du sindikatuak. Nolanahi ere, subsidioaren dekretuaren eta lan-hitzarmenaren dekretuaren eduki guztiak xeheki aztertu behar dituela adierazi du ELAk.

Ildo beretik, LAB sindikatuak adierazi du "lan-esparru propioaren eraikuntzan urrats gehiago" eman behar direla. Sindikatu horrek azpimarratu du 2023ko abenduko akordioak zalantzak sortu zituzkela eta proposamen zehatzak helarazi zituzkela Lan Ministerioari eta alderdi politikoei, akordio hori hobetzeko: "Gure irakurketa kritikoak eta proposamenek ondorio positiboa izan dute, aurreko testuak izan zituzkeen ahulguneak hobetuz", azaldu du.

EAJk Espainiako Gobernuarekin hitzarturikoak ziurtasun handiagoa ematen du 2017an sindikatuen gehiengoak (CCOO, UGT, LAB eta ELA) Confedebak EAEko patronal pribatuarekin sinaturiko akordioa egikaritu ahal izateko. Euskal lan-hitzarmenek lehentasuna izatea adostu zuten ordukoan, baina berme juridikorik gabe ezerezean geratu zen.

Orain, Espainiako Langileen Estatutuak, beharrezko aldaketak eginda honako esaldi ere jasoko du: "Autonomia Erkidegoetako hitzarmenek lehentasuna izango dute gainerako sektore hitzarmen edo Estatuko hitzarmenen gainetik baldin eta baldintzak langileentzat onargarriagoak badira". ●

## Amurrioko Udalak dirulaguntza kendu dio Aiaraldea hedabideari

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**A**iaraldea eskualdeko euskarazko komunikabide bakarra da Aiaraldea, eta Amurrioko Udalarekin 2012. urtetik izenpetua eta indarrean zuten euskara sustatzeko hitzarmena "alde bakarrez" eta "inolako jakinarazpenik eman gabe" eten du udalak. 6.000 euroko dirulaguntzarik gabe, erabakia "oso larria" eta "onartezina" dela ohartarazi du komunikabideak. Egoerari aterabide bat emateko eskatu diote udalari. Oraingoz, udalak ez dio bilera eskaerari erantzunik eman. Euskaletzaren Kontseiluak kezka adierazi du: "Euskarazko tokiko komunikabideen ekosistemak ezinbesteko ekarpena egiten du euskararen normalizazio prozesuan".

Begirada zabalagoarekin so egin dio gaiari Aiaraldea Komunikabideak: "Azken urteotan Amurrioko Udalak euskararen biziberritzearen aurka hartu dituen erabakien azken mugarrria da hau". Adibideak eman dituzte: 2023ko maiatzean Euskaletzaren Kontseiluarekin biltzeari muzin egin eta konpromisoak sinatzeari uko egin izana; uztailean euskararen teknikari lanpostua udal langileen zerrendatik ezabatzea -ondotik, presio sozialari esker atzera egin baldin bazuen ere-; *Gora Aiaraldeko jai euskaldunak* dinamikan sartzeari errefusatu izana, eta abar. "Euskararen aurkako eraso guztiak" etetea eskatu dio komunikabideak Amurrioko Udalari, eta herritarren ekinbidez sortu eta garaturiko euskara biziberritzeko dinamika eta proiektuak baliabide publikoen bidez sostengatzea.

Aiaraldea Komunikabideak duela hamar urte abiatu zuten, eta herritarren babesari esker aitzina egin du, bidean eskualdeko udal eta alderdi politiko guztien babesarekin. Galera ekonomikoei diru ekarpen propioekin erantzun behar izan diete, ordea. Zehazkiago, proiektuak aurrera egin ahal izateko azken bost urteetan 486.329,97 euroko ekarpena egin behar izan du Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak. Testuinguru horretan, Amurrioko Udalaren erabakiak "min ikaragarria" egingo lioke komunikabideari, proiektua kolokan jartzeraino. ●





## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Saldu



UXUE APAOLAZA LARREA

**M**aiatzaren 25ean Aberriaren Eguna izan zen. Argentinan. Bere aberria izugarri maite duen presidentea dute orain han, eta munduan barrena dabil hango berri emanaz. Pasa zen Espainiatik ere, “Europa Viva 2024” enkontru satanikora joateko. Barregura ematen zuten haiek, izua sortzen digute orain, asko ari baitira aginte makilak eskuratzen, eta horiekin, hainbat herrialdetako milioika pertsonaren patuak.

Hauteskundetako momentu batean, eroegi, espantuka, Milei baztertuko zutela zirudien sistemako indarrek; baina ez zen hori, zen Macrismoak irentsi zuela pixkanaka, antisistematzat saltzen zena, sistemarentzat bitamina baino ez zela bai baitzekiten. Milei presidente egin eta ministerioak bantzen hasita, Macriren jendea eseri zen nagusietan, segurtasunean, kasu, aurkari izan zuen Bullrich, eta ekonomian, Luis Caputo. Ekonomia zen Mileiren diskurtsoa ardatzen zuena, ekonomia zen bere indargunea, ekonomia aldatzera zetorren, denek nahiko zuten Argentinan inbertitu bera jarritakoan. Eta deuseztatzera zetorren politika tradizionalako gizon bat jarri diote ministerioan, bera ikuskizunak ematen ari den bitartean, gaixo onkologikoei botikak kentzen, jantokiei janaria... Soberan zegoena kentzen, alegia, jendea, alegia, pobreak.

Entzuten dituzue orain Argentinako gobernukideak? Enpresariekin ia haserre dabilta, ez dutenez inbertitzen. Munduan zehar Argentinaren dohainak saltzen ibilita ere, ez dute inbertsiorik lortzen. Ezta bertakoekin ere. Zer izango da.

Macrik gobernatu zuen lehen ere. Eta badakigu zer egin zuen. Herrialdea saldu. Ez besterik. Aberriaren egunean traidore batek hartu zuen mikrofonoa, Mileik, jakinda, jakin gabe, berriro herrialdea saltzera datorrena. Nork nahi du Argentina erosi. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Sexu erasoak

2016an bi emakumek bortxatuak izan zirela salatu zuten, Iruñean. 2018an auzia artxibatu zuten eta ez zen epaiketarik egin. Espainiako Poliziak, Fiskaltzak eta Nafarroako Auzitegiak ikerketan egindako irregulartasunak salatu ditu biktimen abokatuak. Ikerketako polizietako bat bortxaketaz akusatutako gizonetako baten koinatua da.

## Armak

Arma nuklear taktikoak erabiltzeko prest dagoela adierazi du maiatzaren 21ean Errusiako Defentsa ministerioak, zehaztuz “Mendebaldeko arduradun batzuen mehatxuei” bideraturiko erantzuna dela. Oraingoan, arma nuklear taktikoak ez dira inoiz erabiliak izan, hain zuzen, suntsiketa gaitasun ikaragarriatik.

## Palestina

Palestinako Estatuak errekonozituko dutela iragarri dute Espainiako Estatuak, Norvegiak eta Irlandak Maiatzaren 28an hartuko dute neurria ofizialki. 1967 aurretiko mugak aitortu dizkiote Palestinari, eta bi estatuen konponbidearen alde lerratu dira. Israelek esan du erabakiak terrorismoa saritzen duela.



# Habia



ULA IRURETAGOIENA

**E**txean sartuta dago gurekin sentituko dugun txoko bat, gauaren nekean besarkatzen gaituen gunee bat, negarra askatzeko espazio sentituko dugun hori, goxotasunarekin konektatuko gaituen etxeikoitasuna, bakardadean konpainia egingo gaituena. Mugimenduan diren bizitza askok ez dute baina, etxetasun hau osatzeko astirik. Bizi iraupenaren pultsioak, emantzipazioak, lanaren eskaerak, ikasketak, ihesaldiak; badira arrazoi desberdin asko epe laburrerako egonaldi-arkitekturak habitatzera eraman gaitzaketenak eta epe luzeko habitat ere du bilakatu daitezkeenak. Gurea egin nahi dugun txoko baten eraikuntza bilaketa konstante batean bilakatu daiteke orduan, nonbaitera atxikitze beharra eta atxikimenduarekiko zailtasunaren arteko tentsio batek sostengatua. Propioa zaigun etxe-espazioa eraikitze aukera zaila den unean, etxearen ordeko habiak egiten ditugu leku desberdin askotan, piztu eta amatatzen den konstelazioko etxetasun lurralde bat eraikiz.

Lur hartzerik gabeko habia gurekin eramaten ditugun eta gureak egin ditugun objektuek osatu dezakete. Kaxa kopuru batean kabitzen diren gauzak ezinbestekoak bilakatu ditzakegu gure bizi-mugimenduen konplize egiterakoan, txoko propioaren ordezkatzaila papera hartzeraino. Arrazoi indartsuren batek lotuko gaitu hauengana; ez dira gurera etorri diren objekturik inportanteenak izango, ez eta garestienak ere, habia osatzeko adina esangura dutenak baizik. Praktikotasuna, oroimena eta sinbolismoa nahasten dituzten gauzak izango dira, botere handi bat gordez: etxe-gabeko bizimoduan familiarra egingo zaigun espazio bat eratze-ko ahalmena izango dute. Espazioarekiko arintasun lotura honek ernaraziko du materialtasunak duen balore afektiboarekiko ezagutza bat, eta irakatsiko digu objektuen konposaketa desberdinekin etxekooi habia bat eraikitze artea. Plastizitate handiarekin gure kit-etxekoia hedatu dezakegu ia edonon, erresilientzia eta bizi iraupenaren gakoak, non eta habian, arkitektoerik gabeko arkitekturak. ●



AMAZON

## Amazonen opari bat

**URKO APAOLAZA AVILA**

**A**mazonek, Jeff Bezos magnatearen konpainia estatubatuar erraldoiak, dirutza gastatuko du Aragoian dituen hiru datu-zentroak handitzeko. Bere filial Amazon Web Servicesek (AWS) 15.700 milioi euro jarriko ditu Huescan eta Zaragozan, Pirinioetatik datorren Gállego ibaiaren inguruan dituen "laino" edo *cloud* azpiegituren tamaina sei aldiz biderkatze. Munduko gunee handienetako bat sortuko dute Erriberatik apenas ehun kilometroa.

Internet bidezko denda global hegemonikoaren txanponaren beste alde dira datu-zentroak, birtualetik gutxi dutenak. Milaka milioi klik elikatzeko, sekulako energia kopurua behar dute: Aragoikoek bakarrik, 300.000 pertsonako hiri batek bezain beste elektrizitate, 300 megawatt. Gainera, datu-zentro horiek hozteko ur kontsumoa ere izugarria da, batez beste 25 milioi litro ur urtean, *Tu nube seca río* (Zure lainoak nire ibaia lehortzen du) kolektiboak gogorarazi duen moduan, hiri handi bateko biztanleen beharrak asetzeko adina. Aragoian, horretarako, Villanueva de Gállego herrian ur-depositu handi bat eraikiko dute, beretzako propio egindako hodi bati zuzenean lotua, ibaitik ura ateratzeko.

Baina AWSk nahiago izan ditu bestelako datu batzuk nabarmendu proiektuaren aurkezpenean: 17.500 enplegu sortuko dituela, 5.000 arbola jarri dituela Zaragozan, eskoletan kanpainak egingo dituela, eta 2030 urterako "gastatzen duena baino ur gehiago itzuliko" duela, horretarako hoditerian sentsoreak jarri eta hidrografian hobekuntzak eginda. Dena teknologia berrienez, "think big" eta "high tech". Gainera, multinazionalak ziurtatu du elektrizitatearen %100 berriztagarrietatik lortuko duela 2025 urtean.

Horren barruan kokatu dezakegu Aragoiko operazioa iragarri bezperan AWSk zabaldutako beste albiste bat: Nafarroan "eskala handiko" bi zentral fotovoltaiko eraiki nahi ditu, biek batera 72 megawatteko potentzia izango luketenak. Bezosen enpresak ez du zehaztu Nafarroako zein tokitan jarri nahi dituen poligono horiek, baina Espainiako Estatuan eraiki nahi dituen hamabi proiektuen barruan daude, denera 2,9 gigawatt ekoizteko gaitasuna edukitzeko.

*Greenwashing* kanpainak gorabehera, Amazon eta beste lau konpainia teknologiko handienak (Meta, Alphabet, Apple eta Microsoft) munduko karbono isurien %2 eta %3aren atzean daude, Globak Action Plan GKEak berriki egindako ikerketa baten arabera, besteak beste hiperkontsumoa bultzatzen dutelako. Kontsumo ere du jasangaitza, klima aldaketa, idortea eta kolonizazio energetikoa opari ekarriko dizkigu beraz Amazonek, paper orlegitan eder bilduta. ●

5

urte eta zazpi hilabeteko espetxe zigorra eskatu du Carlos García fiskalak Oihana Garmendia, Oihana San Vicente, Haimar Altuna, Felipe San Epifani Pipe, Kai Saez de Egilaz eta Antton Lopez Ruizentzat, 2016 eta 2020 artean preso politikoei antolatutako "ongietorriengatik".

2.000

sinadura bildu dituzte Pasaian, Escalerillaseko bizilagunentzat bizitoki-alternatiba baten alde. Pasaiaiko Portuak eta Euskal Trenbide Sareak etxetik bota nahi dituzte 12 familia.

3

udalek (Azpeitia, Zestoa eta Errezil) helegitea jarri diote Statkraftek Sañoa eta Etumeta mendi inguruetan eraiki nahi duen zentral eolikoaren proiektuari.

*“Erasotzailea inpunitate osoz mugitzen den bitartean, biktima beldur da kalera bakarrik ateratzeko”*

**ONINTZA ENBEITA**

Saskibaloijokalaria batek salatu zuen Lointek Gernikako kirol entrenatzaile Mario Lopezek sexu gehiegikeriak egin zitziola. Biktimaren lagun handia da Enbeita.

**ARGIA.EUS (2024-05-22)**



**“PRESEN ERRUZ IBAIK GUZTIZ ZATITUTA DAUDE”**

**ARTURO ELOSEGI**

Biologian katedraduna da eta Ibai Ekologia ikerketa taldeko kidea. *Egonarria* saioan ibaiek duten garrantziak aritu da: ura garbitzeko gaitasun handia dute eta mundu mailan ekosistema dibertsoenetakoak dira.

**ARGIA.EUS (2024-05-23)**

*“Aurreikuspen onenetan, gazteen kopurua bikoiztuko dute nagusiek eta kasurik okerreanean boskoiztu. Zaintzari buruz hausnartu behar dugu”*



**IRATI MOGOLLON**  
Soziologoa.

**AIARALDEA.EUS (2024-05-22)**



## TEKNOLOGIA

# Animalia telegidatuak



DIANA FRANCO

**A**beltzaintzan lan egiten dutenek oreka bilatzen dute: animalien bizi kalitatea ahalik eta onena izatea eta ekoizpenaren bideragarritasun ekonomikoa lortzea. Gizakiok munduari muga fisiko ugari jarri dizkiogu "geurea" dena babeste aldera, "geure" animaliak kanpo mehatxuetatik babesteko: azeriak, otsoak eta bestelako harrapakariak, eta geure animalien gorputzek gure bizi kalitatean duten eragin onaren bila, harresiz josi dugu paisaia, gizakion beldurren mosaikoa bilakatuta.

Animaliak zaintzeko teknologiak sofistikatu egin dira eta gaur egun munduaren gainazaleko irudia eraldatzen hasi dira: neurri fisikoekin babesten zena, datuekin babestu daiteke orain. Animaliek lepoan duten zintzarri elektronikoa batekin, GPS bidez dauden tokiaren informazioa bidaltzen diote artzainari -berau ere makina bat izan daiteke-, eta artzainak definituta duen bazkatzeko eremuaren arabera, animaliak kontrolatzen ditu, deskarga elektriko txikien bidez. Hala, animaliak edozein lekutan egon daitezke modu automatikoan kontrolatuta eta euren bizitzak arrisku handitan jarri barik. Beldurraren mosaikoa jada ez da begi-bistan izango, ordenagailuetan gordeko da. Badirudi praktika honek zenbait onura gehiago ekar ditzakeela, besteak beste animaliak basoan askatzea eta asiak jan eta sute arriskuak txikitzea. Harrapakariak ere euren bizitza babestuta izan dezakete, zintzarria jarrita "jabedun" animalia bat erasotzera doazenean deskarga bat jasoko dutelako, eta horrela, gizakiok harrapakariak akabatzeko arazoia desagertuko litzateke.

Argi dagoena da, eta animaliak kudeatzeko dugun moduarekin erraz ikus dezakegu, beldurra dela gizakiok egun bizi dugun mundu ereduaren erantzuleetako bat, eta beldur horiek txikitu izan ditugula opresioa eta kontrola erraztu diguten teknologiak sortuta. Deigarria da, natura eta animalien gain aplikatu dugun teknologia geure espezie bereko izakiek eragiten diguten beldurrari aurre egiteko erabiltzen dugula askotan. ●

## NAZIOARTEA



ANADOLU AGENCY

Hainbat lagun migratzaile, Libia eta Tunisia arteko mugatik gertu 2023ko uztaillean.

## Europar Batasunak arrazakeria finantzatzen du

**H**ainbat komunikabidek, *The Washington Post*, *Le Monde* eta *Der Spiegel*ek tartean, Lighthouse Reports taldeak koordinatutako ikerketa argitaratu dute. Bertan frogatu dutenez, Marokoko, Tunisiako eta Mauritaniako polizia eta militarrek azal kolorearen arabera sarekadak egiten dituzte, ustez migratzaileak edo errefuxiatuak diren pertsona beltzak atxilotu eta herrialdekanpo indarrez bidaltzen dituzte. Urtero milaka pertsonak sufritzen dituzte praktika horiek. Arrazakeria masiboaz ari gara.

Atxilotu ondoren, ondasun guztiak konfiskatzen dizkiete, identifikazio-paperekin barne. Gero, migratzaileentzako atxilotu gune berezietan sarrarazten dituzte. Leku horiek aspaldi dira ezagunak dituzten baldintza kaskarregatik. Geroago, urrutiko zonaldeetara eramaten dituzte, batzuetan basamortura (Sahara kasu), urrik, mugikorrik eta dirurik gabe.

Beatriz Ramalho da Silva kazetaria ikerketaren egileetako bat da, eta Radio France internationale irrati-kateko elkarrizketa batean azpimarratu duenez, hainbat filmazio, elkarrizketa zein dokumentazioaren bidez egiaztatuta dute atxilotutako pertsonen artean haurrak ere badaudela, eta gerran dauden zonaldeetara ere eramaten dituztela, hala nola Mauritania eta Mali arteko mugara, edo Tunisia eta Libia arteko basamortura.

Esan beharrik ez dago praktika horiek goitik behera urratzen dutela giza eskubideei buruzko nazioarteko itun guztiak agintzen dutena, argi eta garbi. Eta halere, ikerketak erakutsi duenez, praktika anker horiek finantzatzen di-

tuztenak dira giza eskubideen defendatzaile gisa agertzen diren Mendebaldeko herrialdeak beraiek. Zehazkiago, sarekada arrazistak Europako diruari "esker" egiten dituzte, hein handi batean. Ikerketan parte hartu duten erakundeek salatu dute "Europar Batasunak emandako ibilgailuak, teknologia eta entrenamendua" erabiltzen ari direla. Urtebeteko ikerketa prozesuan, lizitazioak, kontratuak, akordioak eta bestelako frogak bildu dituzte kazetariak, EBren finantzaketa zuzenean lotzen dutenak lege kanpoko jardura horiekin. Baina salatu dutenez, egoera are ankerragoa da, EBko arduradunek badutelako europar diruari ematen dioten erabileraren berri. "Urteak dira EBk dakiela hori gertatzen ari dela, eta, halere, funtsak ematen jarraitzen du", deitoratu du Ramalho da Silvak. "Dokumentu konfidentzialak dauzkagu. Horietako bat, adibidez, Europako Batzordekoa da. Bertan Marokoko praktika horiek deskribatzen ditu, eta dokumentu berean 'migrazioa kudeatzeko' beste diru-partida bat onartzen dute".

"Pertsonen larruzalaren kolorean oinarrituta egiten dira atxilotetak. Kallean bizitza normala egiten daudela, okindegi baten ilaran edo, atxilotzen dituzte, praktika erabat arbitrarioa da eta guztiz sistematikoa", dio Ramalho da Silva ikertzaileak.

Europar Batasunak lankidetzak akordioak sinatu ditu Maroko, Tunisia eta Mauritaniarekin, Europara datorren "migrazio irregularrak geldiarazteko". Hala, 150 milioi euro bideratu ditu Tunisiara, 210 milioi Mauritaniara eta 624 milioi Marokora. ●

# Hiri eredu bizigarria aldarri

**DONOSTIA** / Donostiako hainbat auzo elkarte eta gizarte mugimenduk osatzen duten Donostia Defendatuz koordinadorak antolatuta, hiri eredu bizigarri baten aldeko manifestazioa egin dute ehunka lagunek. 42 talde sozial eta auzo elkartek egin dute bat deialdiarekin. Koordinadoraren iritziz, Donostiako egungo hiri eredu "gutxiengo baten onurara bideratuta dago", eta gehiengoaren bizi baldintzak "baztertuta geratzen dira sektore pribilegiatuenean mesedetan".

 SARA IBARGUREN  IRUTXULOKO HITZA





# MARSHALL UHARTEETAN, ELKARLANA DUTE ITSASOAREN IGOERARI EGOKITZEKO PLANEN OINARRIAN

Ozeano Barean, atoloi apalez osatuak, Marshall uharteak dira klima aldaketaren aurrean herrialde hauskorrenetakoa, itsas mailaren gorakadak zuzenki mehatxatzen dituelako. Bertako gobernuak egokitze plan sakon eta zehatz bat martxan jarri du, biztanleekin elkarlanean, behetik gorako plana eraikitzeke asmoz. Honen arrakasta neurri handi batean nazioarteko laguntzaren menpekoa da, hori gabe ezingo luketelako gauzatu. Hala eta guztiz ere, mundu mailan eredugarria izango litzatekeen egokitze eredu bat sortzea dute helburu.

 NICOLAS GOÑI

Ozeano Barean kokatzen dira Marshall uharteak, Papua Ginea Berria eta Hawaii uharten arteko erdibidean, bortz uharte eta 29 atoloi estuz osaturik, itsas mailatik metro gutira. Estatu honen azaleraren %99.96 ozeanoak osatzen du –munduko ozeano proportziorik handiena–, 181 km<sup>2</sup> lur azalera baizik ez dituelarik (Irun, Lesaka, Bera eta Urruña elkartuz gero, azalera handiagoa genuke). Atoloi populatueta-rik txikienetan bide bat eta etxe lerro bat baizik ez dituzte eraiki, estutasunagatik.

Prekarioa dirudien geografia honetan 42.000 pertsona bizi dira, eta aurretik, gaur egungo marshalldarren aitzinekoak 3.200 urtez bizi izan dira, bertan laborantza (taro, ogi-zuhaitz, kokondo eta palmondoa) eta arrantza garatuz, nabigazio sistema konplexuekin. Uhar-teak begiztatu zituen lehen europarra Alonso Salazar bizkaitarra izan zen, eta ondorengo esploratzaileetariko bat Miguel Lopez Legazpi, hortik mendebal-dera kokaturiko Filipinak kolonizatzen hasi zena. Marshall uharten kolonizazioa bera XIX. mendean hasi zen, Britainia Handiak eta Alemaniak beraien artean adostu zutelarik munduko puska hori Alemaniaren esku geratuko zela. XX. mende hasieran Japoniak berega-

natu zituen, eta 1946an AEBek –ordutik 1958ra 67 bomba nuklearren probak egin zituztelarik, ARGIAren 2468 aleko *Marshall Uharteak bomba atomikoen debekua eskatzen* erreportajearen Pello Zubiriak azaldu bezala–.


Finean, potentzia militar handiekin topatzeak ez zien marshalldarrei onura askorik ekarri: XIX. mendean gripea, elgorria, sifilisa, sukar tifoidea eta alkoholismoa, XX. mendean Bigarren Mundu Gerraren albo kalteak eta proba nuklearrren ondorengo eritasunak. Nuclear Claims auzitegiak hala erabakiz, AEBek zor dizkien 2.000 milioiak ez dituzte oraindik osorik eskuratu, ezta hurrik eman ere. Egoera hori aski zaila ez balitz, azken urteotan klima aldaketaren eraginak gehitzen zaizkie. Lehor-teak eta itsas mailaren igoera azkarrak bertako jarduerak oztopatzen dituzte, batez ere atoloi urrunetan. Laborantzaren oso menpekoak izanik, nola biziraunarazi daitezke zuhaitzak atzera egiten duten lurretan eta euri eskasean?

## KOMUNITATEA, EGOKITZAPENAREN OINARRI

Bertako gobernuak halere ez da hondamendi horien aurrean ezer egin gabe gelditzen. Hain zuzen ere, garatu duten

egokitze plana hainbat adituk txalotu dute. Columbia unibertsitateko zuzenbide irakaslea den eta klima aldaketa-ri egokitzapen politiketan aditua den Michael Gerrardek ikusi izan duen egokitze plan "zehatzenetarikoa" da, "sakona" eta "arretazkoa" iduritzen zaiona. Dioenez, planak ez ditu, beste askok bezala, kezka adierazten ekintzarik martxan ezarri gabe. Ez, erabakitze prozesu sistematikoa eta sakona abiatzeko plana da marshalldarrena. Planak garatuz joan ahala, populazioaren %3 baino gehiago elkarrizketatu zituen gobernuak 123 egunez, 24 uharte eta atoloi bisitatu. Gaurko egunez, komunitatearen parte hartzea martxan ezarri duen egokitze plan nazional bakarra Karibeko Santa Luzia irlakoa da, baina 100 pertsona baizik ez dituzte elkarrizketatu bertan.

Kathy Jetñil-Kijiner olerkari eta aktibista marshalldarra da, eta elkarrizketa horietan parte hartu zuen. *Grist* hedabideari azaldu zioenez, aldaketa erraldoiak egitera doaz beren uharteetan, eta horrek ezin du funtzionatu gobernuaren erabaki unilaterala baldin bada: komunitateak bertatik etorri behar da, komunitateak dituelako eraginak pairatuko. Bai, demokrazia existitzen da mundu honetan nonbait.



### KUWAJLEEN ATOLOIA

Itsasotik 1.80 metroko garaiera duen atoloia. Itsas mailaren igoerarengatik desagertzeko zorian dira Marshall uharteak.

WIKIMEDIA

Elkarrizketatu dituzten marshalldarren ia erdiak itsas mailaren igoera nabaritu dutela diote, eta ia laurdenak ur edangarri eskasa pairatu dutela. %20 baino gehiagok diote klima aldaketak beren elikadura ziurtasuna mehatxatzen duela. Iparreko uharteetan egoera bereziki gogorra da. Wocho atoloia luzaz izan da uharteen janari ekoizpen gune nagusietakoa; gaur egun, aldiz, putzuek ur gazia ematen dute, eta lur gazituan hazten diren zuhaitzek fruitu ustelak. Koral zurituetatik arrainak joan dira, itsasgoran ura hainbat etxetara sartzen da, eta ekaitz bakoitzean bidea urpetua da. Hori hasiera baizik ez da: balizko klima ibilbide baikorrenetan ere itsas mailaren igoera 60 zentimetrokoa izan daiteke mende bukaera baino lehen. Bertan ur gezarik eskuratu ezinean edota betiereko itsas uholdeetan bizi beharrean, milaka herritarrek beharko lituzkete uharteak utzi.

### “HEMEN GARA HILKO”

Nahiz eta aurreikuspenak ilunak izan, elkarrizketaturikoek ez dute bertatik ihes egitea lehenesten: %99ak baztertzen du aukera. Batek esplizituki dio, "hemen gara hilko". Elkarrizketatzaileetarikoa batek espero du bere etxea bera zendu arte zutik irautea, inoiz ez bilakatzea klima errefuxiatu, eta marshalldarrek luzarako jarraitzea beren uharteetan burujabe.

Aterabide gisa lehenetsitako aukerak dira kostaren babesa, naturan oinarrituko baliabideen erabilpena –adibidez ekaitzen eragina leuntzeko–, ur gezaren erabileraren hobetzea eta lurralde antolaketa.

Egokitze aukera guzi horiek elementu amankomuna dute: finantziarioa. Hots, nazioarteko laguntzarik gabe, nekez lortuko dute marshalldarrek: 35.000 milioi dolar beharko lituzkete, hau da, biztanle bakoitzeko 730.000 dolar. Gai hori daitozen COP guzien agendan egonen da,

eta ez bakarrik 48.000 biztanleko nazio txiki honi dagokionez. Gobernuak klimari buruzko delegatu Tina Stegek COP bat baino gehiagotan azaldu bezala, hainbat eskualdeentzat egokitzeak diferentzia markatzen badu egoera txarra eta txarragoaren artean, Marshall uharteentzat biziraupenaren eta desagertzearen artekoa da alde. Kathy Jetñil-Kijinerrek dioenez, bertako lurraldea ahalik eta hoberen babesteaz gain, egokitze planentzako eredu bat ezartzea dute helburu, eta hori komunitatearekiko engaiamenduari eta egokitzapena behetik eraikitze-ko borondateari dagokionez.

Marshall uharteetako lema *Jepilpilin ke ejukaan* da: Ahalegin bateratuari esker lorturikoa. Euskal herritarroei ez zaigu arrotz egiten. Eredu honengatik ere dira ahalik eta hoberen babestu behar. Eta atoloi guziak salbatzen ez badugu lortzen ere, behintzat eredu horren zabalpenean lagundu dezagun. ●




ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)





# Estefanía de Paz Asín

ANIMALIA ESZENIKOA



## HILDAKOAK ERRESKATATZERA ETA BERPIZTERA ETORRI NAIZELA SENTITZEN DUT



"Garai batean, nire herrian, kateme guztiek Remigia izena zuten, kateme belaunaldi oso bat, Iruñeko ikuspegi panoramiko ederrenak konkistatu zituztenak". Horrela hasten da Remigia Etxarren funanbulistaren bizitza kontatzen duen *Argako erregina* antzezlan. Estefanía, Tefi, haren azalean sartu da, hezur-muineraino, artista handi haren izena berreskuratzeko.

Eta grina berarekin sartu da Olvido Floresen soineko beltzean ere, 1936ko uztailean Lodosan zegoen Anastasini Zirkuko *troupe*-ko kideak nola errepresaliatu zituzten kontatzeko. Antzerkia edo esperientzia sensorial hunkigarriak, nahi bezala deitu.

 REYES ILINTXETA  ZOE MARTIKORENA / ARGIA CC BY-SA

### Zergatik diozu hildakoak erreskatatzera heldu zarela sentitzen duzula?

Santu Guztien egunean jaio nintzelako eta desagertutako pertsona berezien oroitzapena gal ez dadin zerbait egin behar dudala sentitzen dudalako. Izan ere, Remigia Etxarren, Argako Erregina, inoiz baino biziago dago orain, jaio zenetik 171 urte igarotakoan.

Modu berean, *Olvido Flores* lanarekin asko sufritu duen jende asko erreska-

tatzen ari naiz, Anastasini Zirkukoak ez ezik, gerran errepresaliatuak izan ziren milaka pertsona ere bai.

### Nola hasi zinen arte eszenikoetan?

Beti izan naiz nahiko geldiezina. Eskolak ez ninduen gogobetetzen. Betidanik izan naiz dislexikoa eta asko kostatu zait irakurtzea eta idaztea. Artistok beste intelijentzia mota bat dugu. Gure burmuinak beste modu batez ulertzen du mundua. Kezka artistikoa izan dut

gaztetatik eta 17 urterekin antzerkian eta zirkuan aritzen diren Banda Teatro taldeko kideak ezagutu nituen. Malabaretara eta zirkuko tekniketara hurbildu nintzen lehenbizi Oreka Zirku Eskolan, eta gero Nafarroako Antzerki Eskolan antzerkian murgildu nintzen. Niri pertsonak eta alor soziala interesatu zaizkit beti eta horregatik, aldi berean, Gizarte Laneko ikasketak egin nituen. Animatzaile soziokultural moduan aritu nintzen lanean antzerkigintzan buru-



Estefanía de Paz 'Olvido Flores' antzezlaneko eszena batean. (Argazkia: Estefanía de Pazek utzia)



# Estefanía de Paz Asín

IRUÑEA, 1981



Arte eszenikoen diziplina anitzetan trebatutako artista da. Antzerkigile, aktore, zuzendari eta ekoizle izateaz gain, zirku artista, dantzaria eta abeslaria ere bada. *Cabaret paranormal* izan zen bere lehen ekoizpena. 2021ean Remigia Etxarren funanbulista iruindarraren bizitza kontatzen duen *La reina del Arga –Argako erregina* euskarazko bertsioan –plazaratu zuen eta aktore lan onenaren Feten saria irabazi zuen 2022an. laz *Olvido Flores* estreinatu zuen Anastasini Zirkuaren historia gogoratzeko: 36ko gerra hasi zenean Lodosa herrian zegoen zirkuko kide gehienak desagerrarazi zituzten tropa frankistek eta soilik gutxi batzuek Portugalera ihes egitea lortu zuten. Bi antzezlan hauek ele biz jaso ditu antzerkigileak, Reikiavik argitaletxearekin kaleratutako irudiz betetako bi liburu ederretan.

belarri sartu aurretik. Beti izan dut sentsazioa agian zirkuan beranduegi hasi nintzela. Zer tristea den gure gorputzaren urte onenetan denbora guztia ikasgela batean eserita egon behar izatea!

Oso pailazoa naiz eta zirkuaren munduan kluna da gehien gustatzen zaidana. Nik figura hori irmoki aldarrikatzen dut. Oholta da libre senti zaitezkeen leku bakarrenetakoa. Nahi duzuna egin eta esan dezakezu. Askatasun eremua da.

## Nolakoa izan zen Remigiarekiko bat-bateko maitemintzea?

2017an estreinatu nuen *Cabaret Paranormal*. Dirua, energia eta maitasuna jarri nituen lan horretan eta oso ongi ateratu zen. Gero *Eo* izeneko lana prestatu nuen, baina pandemia iritsi eta katastrofe bat izan zen. Nik garai arraro hori probestu nuen Remigia bilatzeko. Bere historia bizirik mantendu da aho-belarriko komunikazioari esker eta han-hemen haren berri hartu izan dut aspalditik. Zirku eskolan nengoela, adibidez, omenaldi bat egin zioten emakume funanbulista hari. Ero bat zen, aitzindari bat. Sarasate eta Gayarrerren garaikidea izan zen eta Europako zirku artistarik kotizatuena izatera iritsi zen arren, ezezaguna da soilik emakumea izateagatik.

Oilo pikorrak jartzen zaizkit berrari buruz hitz egiterakoan, baita gaur egun ere.

## Nor zen?

Remigia Etxarren Iruñean jaio zen, 1853an. Funanbulista zen eta gaztetan burdin hariaren gaineko lanak egiten hasi zen. 1882ko sanferminetan zezen plaza zeharkatu zuen alde batetik bestera. Hurrengo urtean, 1883an, Iruñeko Arga ibaia gurutzatu zuen hari fin baten gainean eta horregatik esaten zioten Argako erregina. Europa osoan ibili zen Mademoiselle Agustini goitizenaekin eta horrela deitzen da orain ofizialki Arga gaineko zaldaina, nik antzezlanaren estreinaldian proposatu nuen bezala.

Pandemian Remigiak zartako moduko bat eman zidan. Bere heriotzaren mendeurrenerako hamar hilabete

gelditzen zirela ikusi nuenean pentsatu nuen hau zela unerik egokiena zerbait egiteko. Buru-belarri hasi nintzen ikertzen. Udal Artxiboan berak idatzitako eskutitzak aurkitu nituen, grafologo batengana jo nuen bere letra aztertzeko, hitz egin nuen historialari eta antikuariorekin eta horietako batek istorio oso polita kontatu zidan: garai batean Iruñeko kateme ia guztiek Remigia izena zutela, bera bezala teiltueta ibiltzen zirelako. Horrela hasten da nire ikuskizuna. Hori jendeari esker mantendu da bizirik.

Informazio baliotsua aurkitu nuen Paco Roda eta Ana Diez de Ure historialarien lanetan eta orain berriki agertu da bere argazki bat, duela 140 urte egindakoa eta oso pozgarria izan da, azkenean aurpegia jarria ahal izan diogulako. Gordeta eta ilunpean egon



**Remigia Etxarren aitzindari bat da, Gayarre eta Sarasateren garaikidea, Europako zirku artista kotizatuena, baina emakumea izateagatik ezezaguna”**

da denbora horretan eta horri esker iritsi da gaur egunera arte. Javier Azketa historia zaleak aurkitu zuen Zaragozan. Remigiaren balentria handiak biltzen dituen aurkezpen txartel moduko bat da.

## Nolako zen?

Ero bat zen: *Aulki arriskutsua, Mahai arriskutsua* eta *Bermut arriskutsua* numeroak egiten zituen soka gainean, errebolberrak disparatzen zituen, Alpeetako itsuaren saioan zaku bat jartzen zuen buruan eta erokeriak egiten zituen, batere sare edo segurtasun trenarrik gabe... Martxoaren 27 batean egin zuten orain agertu den argazkia eta hori jakin gabe, justu egun horretan, kaleratu genuen liburua. Sentitzen dut Remigiak seinaleak bidaltzen dizkidala eta hemen dagoela, harro. Gauza asko bizi izan dut emakume horri esker. Kaletik Remigia deitzen didate eta buelta ematen dut. Dagoeneko batzuetan ez dakit Estefanía edo Remigia naizen.

## Nola amaitu zen bere artista ibilbidea?

Hamar urteko urrezko aro bat izan zuen harik eta 1892an istripu bat izan zuen arte. Kanean loteria saltzen bukatu zuen, oso modu prekarioan. Erroldan bilatu nuenean eskale gisa agertzen zen. Izar bat zarenean mundu guztiak maite zaitu, baina gain-

beheran zatozenez inork ere ez. Egia da aldamenen komeni ez zitzaion eta galbidean eraman zuen gizon bat izan zuela, baina horretan ez dut sartu nahi, ematen duelako beti emakumeen historietan gizonak aipatu behar direla, eta nik Remigiaren bizitza kontatu nahi dut, besterik ez.

### **Eta nola sortu zen Olvido Flores pertsonaia berria?**

*Argako Erregina*-ren emaldi baten ostean, Barañainen, Paco Roda historialariak Anastasini Zirkuari buruz hitz egin zidan. Ileak tente jarri zitzaizkidan eta une horretan berean jakin nuen Anastasini Zirkukoak nire bizitzaren parte izanen zirela. Hasi nintzen ikertzen eta informazioa bilatzen. Harremanetan jarri nintzen horretan hamar urte lanean daramatzatzen hiru historialariek: María José Sagasti, Jesús Nieto *Eme*, eta Javier Ayape. Hau guztia nire belarrietara iritsi zenean, zirku artista bezala sentitu nuen zerbait egin behar nuela. Gure etxean birraitona desagertu zen gerran eta faltan sumatzen dugu. Iruditu zitzaidan polita zela nire odol familiaren historia, zirku-ko nire familiakoarekin lotzea. Birraitona Eloko hilobi komun batean agertu zen eta urrezko hortzengatik ezagutu ahal izan zuten. Anastasini Zirkukoak ez ziren hemengoak eta inork ez zituen bilatu. Omenaldia egin nahi izan diet joan zirenei eta hemen gelditzen garenoi, beti gelditzen delako norbait dolu-minez. Oso polita iruditzen zait Olvido Floresek haiei lo kanta bat egitea betiko atsedena har dezaten. Familia askotan oraindik bizirik dagoen oinazea ikaragarria da.

### **Zer gertatu zen zirku horrekin?**

Anastasini Zirkua italiar jatorriko zirku handia zen, 1936ko uztailaren 18an Lodosan lanean ari zena. 50 laguneko zirku-taldea arrastorik utzi gabe desagertu zen, magia-zenbaki batean bezala, karpa, zaldiak eta Lodosako kale estuetan noraez-ean geratu zen elefante bat utzita. Asko desagertu egin ziren, eta badirudi fusilatuta egin zituztela. Larraga eta Mendabia artean aurkitutako gorpuzki batzuk berenak direla uste da. Batzuek Portugalera ihes egitea lortu zuten eta handik Amerikara. Bizirik atera zirenetako batek, Renatok, orduan 3 urte zituenak, Floridako Anastasini Zirkuarekin jarraitzen du gaur egun. Bere bi seme, Giovanni eta Luciano, 2023ko abenduaren 4an etorri ziren Lodosara eta Larragara eta omenaldi txiki bat egin genien. Iragarri dutenez, 2025eko uztailen



itzultzea gustatuko litzaieke, 1936an bukatu ezin izan zuten emanaldi hura amaitzeko. Eme Nietok eginiko monumentua

bisitatu genuen Larragako Memoriaren Parkean eta obra egin nuen haiantzat. Oso hunkigarria izan zen.



## **AGENDA BETE-BETEA**

Remigiarekin 300 emanaldi baino gehiago egin ditugu 2021ean estreinatuta genuenetik. Horietako batzuk euskaraz, Lorena Arangoa artista handiarekin. 2022an Feten azokan sari bat eman zidaten eta horrek ate asko ireki dizkit. Estatuan barna ibili naiz eta badirudi laster Alemania eta Argentinara joateko aukera ere izanen dudala. Remigia Europa osoan ibili zen eta gustatuko litzaideke bera ibilitako tokietara joatea, baina ez da erraza.

Ekainaren 2an, liburu ferrian, Katakrakek antolatuko saio batean ibilaldi berezia egingen dugu Iruñean Remigiak egin zituen balentriak gogortzeko. Amaieran "bermut arriskutsua" hartu eta *Olvido Flores* liburua aurkeztuko dugu.

### **Nor da Olvido?**

Objektu galduen bulego batean dagoen narratzailea da. Loreak eramatea ahazten zaigun pertsonen metafora da. Pertsonaia hau Catrina, Mexikoko heriotzaren, besteen hildakoengatik negar egiten duen negar-kantari baten eta umore beltza egiten duen pailazo aurpegi-zuri baten nahasketa da.

Bere mezua oso zuzena da: bizitza laburra da eta mundu honetatik ez dugu deus eraman behar, beraz aprobeatza dezagun.

### **Maravillas de Júpiter izeneko karabana batean egiten dituzu emanaldiak?**

Bai. Barrutik hilkutxa moduko baten itxura du. 22 pertsona sartzen dira barruan, 22 izan zirelako zirku honetatik desagertutako pertsonak. Polita iruditu zitzaidan ikusleak espazio itxi eta estu horren barruan sartzea historia hau kontatzeko. Emanaldia laburra da, 25 minutu baizik ez. Labur eta trinkoa. Xafalda moduko bat.

Badut beste bertsio bat areto handiagotan egiteko eta horrek ordu beteko iraupena du, informazio gehiago ematen dudalako.

### **Nola bururatu zitzaizun karabana hori moldatzea?**

Errioxako Nalda herriko ferietako salerosle batzuei eginiko omenaldia da. Haien barraketa bat zuten eta hainbat mu-



sika tresna jotzen zituzten egurrezko automata batzuekin, herriz herri joaten ziren harik eta tonbolak modan jarri ziren arte. Haiena *Las maravillas del teatro de Júpiter* zen eta hortik hartu nuen izena ere bai. Istorio miragarritz betetzeko asmoa dut. *Olvido Flores* da lehena, baina beste ikuskizun txikiak egiteko espazioa edo film laburrak proiektatzeko zinema-areto ibiltaria ere izan liteke.

### Bi lan horietako liburu bana plazaratu duzu Reikiavik argitaletxearekin. Pozik?

Oso pozik. Nik ez dut Remigia eta Anastasinikoak hiltzea nahi eta liburu horien bidez hilezko bihurtu dira. Liburu ederrak dira, irakurterrazak eta irudiz beteak. QR bidezko loturak ere badituzte zenbait ikus-entzunezkotara bideratzeko. Ikerketa prozesuetan aurkitu ditudan agiri eta argazkiak eta sorkuntzan parte hartu duten artistak eta haien lanak ikusarazi nahi izan ditut. Antzezlanen testuak ere ageri dira, gaztelaniaz eta euskaraz, Nerea Balda idazle handiak itzulita. Oso garrantzitsua iruditzen zait informazio hori guztia jendearen esku jartzea. Oraintsu, adibidez, deitu didate Iruñeko institutu batetik esateko



Remigia Etxarren, Argako Erregina.

*Olvido Flores* irakurriko dutela gelan gerra zibilaren inguruko gaiak ematen ari direlako eta izugarritzko ilusioa egin dit.

Reikiavik, orain Iruñean kokatu den argitaletxe berri hau, zoragarria da. Ikustekoa da zeinen maitasun eta gustu handiz landu dituzten liburu hauek.

### Eta hemendik aurrera?

Oso pozik nago, besteak beste *Olvido Flores*-ekin Max sarietarako hautagaia naizelako. Uztailaren 1ean izanen da finala, baina hautagaia izate hutsa itzela da. Gainera, Estatuko Antzokien Sareak gomendatutako ikuskizunen artean daude bi lan hauek eta hori oso garrantzitsua da, casting erraldoi moduko bat delako. Izan ere, badira kultur eragileak soilik ziurtagiri hori duten ikuskizunak programatzen dituztenak. Lorpen politikak dira.

### Baduzu buruan beste hildakoren bat erreskatatzeko?

Baliteke, bai. Zentro Dramatiko Nazionalak *Drama walker* izeneko ekimen bat egin du Gayarre Antzokiarekin batera, bertako antzerkigileen obrak aditu ahal izateko hiriko hainbat tokitan eta nik lan bat prestatu dut gerra ondoren Iruñeko autobus geltoki zaharreko erlojuan sei hilabetez ezkutatu ziren bi errepublikazalaren inguruan. Zortzi minututan ez ditu aukerarik ematen gauza gehiegi kontatzeko, baina gai horren inguruan hainbeste ikertu dudanez, uste dut agian etorkizunean zerbait egiteko aukera izanen dudala. Nik uste dut hori izanen dela nire hurrengo istorioa. ●

**EGUNPASA**  
**SAGARDOAREN INGURUAN**  
 12:00<sup>ETATIK</sup> 21:00<sup>ETARA</sup>


**DASTAKETA POSTUAK**  
**DJAK, JATEKOAK**  
**SERIGRAFIA**  
**FLASH TATOO**  
**HEKTOR FOLK**  
**DASTAKETA BEREZIAK**  
**TAILERRAK...**

**29** **2024KO**  
**EKAINA**  
**ZELAIA**  
**SAGARDOTEGIAN**

**SAGAR**  
**SUGAR FESTA**

**BIZIO**

**Zelaia**  
 SARRERAK ONLINE  
 EDO BERTAN SALGAI  
[www.zelaia.eus](http://www.zelaia.eus)



## Setioa

**S**etio egoeran bizi gara euskaldunok eta katalanak Espainiako Estatuan, eta gainera ez dugu horren kontzientzia argirik, uste dut. Katalunian hori oso nabarmena izan da azken hauteskundeetan eta ondorengo egoeran.

Benetan aztertzeko modukoa da gertatu dena: Espainiako botere faktikoen esku hartzea hauteskunde kanpainan, Madriletik bertatik zuzenean gidatua, batetik, eta horren ondoren lurralde katalanetan gertatu diren estatu-agenteen “lehorreratzeak”, bestetik. Aipa dezadan ikusgarriena, nabarmenena: Pedro Sánchezen jokabidea Kataluniara begira. Haren “bost egunen” melodrama nardagarria burutu zenean, efektua zuzen-zuzenean bideratu zuen hauteskunde katalanetan eragitera, TVE zein beste hainbat estatu-komunikabide modu eksklusiboan eta lotsagabe erabiliz, eta ondoren Katalunian (nagusiki Bartzelonan) behin eta berriro agertuz eta kanpainan parte hartuz, iragarrita edo sorpresaz.

Paraleloan, estatuko komunikabide indartsuenek, prentsa-irradi-telebistan zein sare sozialetan, independentista katalanen eta zehatzago Carles Puigdemonten aurkako eraso amaigabeen jokatu dute etengabe.

Praktikan esan daiteke hauteskunde-lehia guztiz desorekatua gertatu dela, eta Kataluniatik kanpo kozinatu direla emaitzak neurri handi batean. Gogoratu Pedro Sánchezen bost egunen *show* haren ondoren, kanpaina

Katalunian edo Euskal Herrian, PSOE aliatu progresista gisa ikusi nahi duenak, eskuinaren eta eskuin muturraren gobernua ekidin ahal izateko aliatu gisa, bere burua engainatzen du

katalana hasi eta hiruzpalau eguneko bitarte laburrean, Salvador Illaren PSC-PSOEn zerrondak bi puntu pasa egin zuela gora boto estimazioan modu adierazgarrian. Horren ondoren etorri zen tsunami interbentzionistaren efektuak zehazten zailak diren arren, azken emaitzetan ikusarazi dira.

Kontrapuntuan, hor ikusi genuen independentismo elektoralaren erreferente nagusi bihurtu den Carles Puigdemont, jada sei urtez atzerriratu, nola baztertua izan den hauteskundeen gunitik bertatik, eztabaida nagusietatik, kanpainako ekitaldi ikusgarrienetatik.

Goian aipatu dudan guztia konstatazio hutsa besterik ez da. Baina harrigarriena ondoren gertatu da: Kataluniako hauteskundeen emaitzen interpretazio guztiz manipulatu, eta horren ondo-



KARMELO LANDA  
HISTORIALARIA

rioz, Espainiako Estatuak eta PSOEn gobernua berak sortu duten giro politiko itogarria. Dotrina ofizialak azkar batean erabaki du, eta guztioi sinestarazi, Katalunian unionismo espainiar zaleak irabazi dituela hauteskundeak eta horrekin batera independentziarako bidea erabat itxi dela betirako, eta orain Salvador Illa (hau da, Espainia) Kataluniako agintean ezartzea beste aukera demokratikorik ez dagoela.

Hego Euskal Herrian ez gara *PSOE style* horretatik libratu. Hiru aste lehenago izan ziren hauteskundeak EAEn, eta orduan ere ikusi genuen nola jokatu zuten Madrileko “gobernu progresista” hartako nagusiek; EAJ-PSOE aliantza-komodina nahikoa boto ez lortzeko arriskutan ikusi zuten, orduantxe ateratu zuten manipulazio-bateria mediatiko madrildarra eta lokaztu zuten goraka zetorren alternatiba, eta haren gorako bidea izoztu zuten.


Katalunian edo Euskal Herrian, PSOE aliatu progresista gisa ikusi nahi duenak, eskuinaren eta eskuin muturraren gobernua ekidin ahal izateko aliatu gisa, bere burua engainatzen du eta gu, herritarrok, etengabeko frustraziora kondenatu. Galdetu bestela Kataluniako *Esquerraren* jarraitzaileei. PSOE bera baita Espainiako Estatu horren egitura ukatzaile eta zapaltzaile guztien zaindaria. Aitzitik, naziogintzan lana sendo egin eta independentziara bidea berpiztean dago gure aukera. ●



# Ezinari ekin ezinik



MALORES  
ETXEBERRÍA



PAULA ESTÉVEZ

**H**autsak harrotu zituen eta egunkarietako orri asko bete ere bai, luze eta luzaroan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legea berritzeko prozesuak. Joan den abenduan onartu zen legeak hezkuntza komunitateko partaide askoren haserrea piztu zuen, eta erresumina eragin zuen gaietako bat hizkuntza ereduena izan zen. A, B eta D ereduak indarrean segituko dute lege onartu berrian eta, ondorioz, eskolak ezin izango ditu euskaldundu herri honetan gehiengo diren haur ez-euskaldunak.

Pentsatzekoa da, beraz, herri askotan segi egin beharko dela D ereduari matrikulatzeko kanpainak egiten, eredu bat bezala bestea hautatzeko eskubidea duen gurasoa konbentzitzeko D ereduari dela haurrak euskaraz ikasteko modu bakarra, bi hizkuntzaren jabe izateko bermea, eta hori oso onuragarria izango dela haurarentzat, eta abar eta abar. Duela 30 urteko argudioak beste zelofan batean bilduta. Egia esan, nagix pixka bat ematen du, eta kezka eragin.

Kezka, aspaldian frogatu zelako A eta B ereduak emaitza oso kaskarrak ematen dituztela, eta D ereduak ere baduela

zer hobeturik, eta ez gutxi. Etxean jaso ez edo erdizka jaso, eta eskolak ematen ez badu, nola garatu behar du haurrak euskara gaitasuna? Oso herri euskaldunetan bizi bada, errazago (gutxienekoak dira herri horiek); baina inguru zenbat eta erdaldunagoan bizi, orduan eta zailago izango du. Eskolak ezin du berak bakarrik euskaldundu, baina pieza klabea da.

Horiek denak jakinda, harrigarria iruditu zait Euskaltzaleen Topaguneak Nafarroan egindako ikerketaren ondorioei buruz *Berría* egunkarian, maiatzaren 2ko alean, Euskaltzaleen Topaguneko Oskar Zapatari eta Iñaki Sagardoiri egindako elkarrizketan jasotakoa. *Gero eta aldeko gehiago* izeneko ikerketari buruz ari ziren. Euskararen aurkako joerak Nafarroan gora egin duela eta, aldekatasuna landu beharra azpimarratzen zuten. Zubigintzaz, aliantzak josteaz edota adostasun handiagoa lortzeaz mintzo ziren ikerketaren ondorioetan, eta hainbat aldaketa proposatzen zituzten bai diskurtso aldetik baita praktikan landu beharreko lan ildoetan ere. Hezkuntzari dagokionez, hauxe zioten: “Funtsean, aipatzen duguna da kalitatezko hez-

kuntza eredu integral bat nahi dugula Nafarroarentzat, eta, guretzat, horrek ezinbestean esan nahi du euskararen unibertsalizaziora jo behar dela ikasleen curriculumean. Herritar guztion eskubidea behar luke euskara ezagutzea eta hori eskolan jasotzea. Badakigu, ordea, Nafarroan errealitate oso ezberdinak ditugula gaur egun, eta guk planteatzen dugun helburu horretara iritsi aurretik, egun ditugun euskarazko eredu guztiak sustatu beharko genituzke. A, B eta D ereduak jauzi bat egin dezakete kalitatean. Bakoitzak bere erronkak eta ezauzgarriak ditu, noski, baina uste dugu unea dela denei bultzada emateko eta anbizioz jokatzeko (...)”.

Anbizioa baino gehiago ezintasuna ikusten dut nik. Garai berrien izenean eta gogoeta prozesuen itzalean estaltzen ari garen ezintasun handi bat. *Ezina ekin ez gina* izan zen Lizarrako ikastolak 1990ean antolatutako Nafarroa Oinez festan erabili zuen leloa. Ezin hark anbizioa zeraman berekin: ekinaren ekin ez gutxi espero duten helmugara iritsi baietz! Gaur, berriz, anbizio deitzen diogu ezintasunari eta helmuga non jarri ere ez dakigula gabiltza. ●

## Pornografia eta moralismo sexuala



HIRUKI LARROXA

**P**ornografia eztabaidagai izan da hainbat hamarkadatan, eta eztabaidaren zati handi batean ikuspegi moralista eta alarmista nagusi izan da gizarte helduaren aldetik. Hala ere, bada garaia begirada estu hori zalantzan jartzeko eta pornografia ikuspegi zabalago eta zehatzago batetik ulertzeko.

Lehenik eta behin, pornografia ez da fenomeno berria, ezta aro digitaleko fenomeno eskusiboa ere. Historian hainbat modutan egon da, eta gizarte garaikidean izan duen presentziak islatzen du sexu-jarrerak eta -praktikek denboran izan duten bilakaera. Hala ere, begirada moralistak (eta sexofoboak) pornografia deabrutze-ko joera du, berez kaltegarria edo moralgabea den zerbait bezala, bere konplexutasuna eta aniztasuna aitortu gabe.

Gainera, pornografiari buruzko ikuspegi alarmistak (ikus Emakunderen azken kanpaina) sarritan ez du kontuan hartzen pornografiak esanahi eta funtzio desberdinak izan ditzakeela hainbat pertsonarentzat. Batzuentzat, pornografia sexualitatea esploratzeko modu bat izan daiteke, plazerari eta intimitateari buruz ikasteko modu bat, edo baita iruditeria erotikoa zabaltzeko tresna bat ere. Hala ere, narratiba moralistak pornografia kontsumitzen dutenak zaku be-

rean sartu eta estigmatizatzeko joera du, ñabardurak kontuan hartu gabe.

Era berean, garrantzitsua da onartzea pornografia ez dela berez kaltegarria, nahiz eta arazo bihur daitekeen modu akritikoan kontsumitzen denean edo generoari, sexualitateari eta gorputzari buruzko estereotipo kaltegarriak betikitzen dituenean. Baina pornografia bere osotasunean deabrutu beharrean, ikuspegi kritikoago eta gogoetatsuago baten alde egin behar dugu, alderdi positiboak eta izan ditzakeen arriskuak aitortuko dituen.

Ikuspegi zabalago hori premiazkoa dugu, pornografiarekiko ikuspegi moralistak ondorio negatiboak baititu, hala nola gehiegizko zentsura edo sexualki esplizitua den edukia kriminalizazioa eta patologizazioa. Horrek, askatasun sexuala eta norberaren erabakimena mugatzeaz gain, sexu-heziketa egokia eta sexu-jokabide arriskutsuen prebentzioa ere zailtzen ditu.

Hortaz, bada garaia ikuspegi zaharkituak, sinplistikak, estigmatizatzaileak eta debekatzaileak alde batera uzteko. Eta pornografiari modu kritikoagoan, informatuagoan, gogoetatsuagoan, eraikitzaileagoan eta patxadatsuagoan heltzeko (baita hezkuntzaren esparruan ere). ●

## Faxismoari stop!

ARANTZA GUTIÉRREZ  
EHU-KO IRAKASLEA

**E**kainaren 9an Europako hauteskundeak izango dira, herritarrei gutxienez interesatzen zaizkigun bozketak, antza, nahiz eta jokoan asko dugun. Agertzen zaigun panorama, gainera, ez da batere baikorra, ultraeskuinaren aurreratze nabarmena aurreikusten baita. Faxismoari aurre egitera deituta gaude, urtetako borrokan bidez lorturiko esku-bide politiko eta sozialak defendatzera, historiak behin baino gehiagotan erakutsi baitigu ez direla betiko, eta inboluziorako arrisku erreala dago.

Baina esango nuke dagoeneko eskuin muturrak diskurtso batzuetan eragitea lortu duela, eta faxismoak migratzaileak jomugan baditu ere, xenofobia eta gorro-

toaren aurkako erreakzioa epela da, eta, horren adibidea foro batzuetatik egiten den Migrazio eta Asiloaren Europar Paktuaren irakurketa akritikoa. Bestetan, Europaz kanpoko pertsonen beharra eskulan (merke) gisa aipatzen bada ere, mugak blindatzea ez da kolokan jartzen, (gure) segurtasunaren argudioaz. Arriskua kanpotik baletor bezala, herritarrok nahi ez ditugun gerrak eta nekropolitika agintariak elikatzen dituzten bitartean.

Ez da kasualitatea Javier Mileiren ondoan argazkia egin zuten enpresarien artean emakumerik ez egotea, faxistek migratzaileak bezainbeste gorroto baitutuzte andreak, ez gaitzala engaina bozeramaile batzuk hala izateak. ●



# Zenbat lo?



NEKANE TXAPARTEGI  
KAZETARI FEMINISTA

**P**alestinako umeek ere galdera hori buruan ote duten pentsatu dut gure liburua eskuartean dudala. Zenbat lo falta ote diren genozidioa amaitzeko. Zenbat haur hil ote behar dituen oraindik Israel estatu sionistak munduko estatuen konplizitatearekin.

Beraien amei luzatuko ote dizkiete galdera horiek? Edo ez dute horiek egiteko beharrik izango, erantzuna badakitelako? Amek ezin erantzunezko galderak direlako? Haur horiek eta beraien amak, eta oro har emakumeak\*, ordea, ez dira azalduko historian. Are gutxiago subjektu gisa. Eguneroko istorioetan edo berrietan, berriz, ahaldungabe eta biktima gisa. Beraien egiletza kenduta eta beraien minak, beldurrak, jakina, herri zapaldu batean jaiotzearen ondorio gisa azalduta. Zorrite kontua balitz bezala edo, are okerrago, beraien errua balitz bezala.

Zoritzarrez, geuk ere badakigu horretaz, egundaino. Gure haurrak sistematikoki zigortu baitituzte eta eraso baitiete, beraien amek, gurasoek, egindako borrokarengatik, ideiegatik. Klase politikoak eta medioek albo kal-

Gure haurrak  
sistematikoki zigortu  
dituzte eta eraso egin  
diete, beraien amek,  
gurasoek, egindako  
borrokarengatik,  
ideiegatik

teak deiturikoak, kasualitatea izan balitz bezala, baina estatuek eta instituzioek beraiei zuzendutako indarkeria estrukturala da. Motxiladun ume, haur ikusezin eta bidaiariak, berriz, eraso horiek erantzuten eta, Palestinan bezala, bere burua babesteko prest. Haur izatea ez lapurtzeko borrokan.

*Zenbat lo* ilustrazio liburuan horietako batzuk azaleratu eta aitortu nahi izan ditugu. Izan ere, borroka horiek lekurik ez dute izan gure liburuetan, gure memorian. Guretik hasi eta haurren ikuspegi eta egiletza, erresisten-

tzia kolektiboa, marraztu-kontatu nahi izan ditugu. Euskal presoan, iheslarien eta deportatuen haurrak gatazkaren ondorio zuzenak jaso dituztelako, baita horien kontra zuzenean borrokatu direlako ere, beraien erara. Dena debekua den lekuan, maitatzea bera ere delitu bihurtu duten karteletan, harresiak apurtzeko imajinazioa eta maitasuna ardatz hartuta. Hitzak, marrazkiak, gutunak, bisitak, besarkadak, erresistentzia bilakatuta eta askatasunaren alde elkarrekin jolastuta.

Horiek, ordea, ez dira landu gabe etortzen. Alabari, haur bati, zail baitzaio espetxeratua duen amari sentitzen duena adieraztea. Elkar babesteko, barruan dituen galderak ez egitea. Bidelagunak eta babesa behar ditu horretarako. “Ez nago bakarrik” esaldiak zaintzaren beharra eta aitortza irudikatzen ditu liburuan. Gutunetako hitz neurtu eta zuzenak ere, errua eta egiletza bere lekuan jarri nahian, *ez zaitut abandonatu, banatu gaituzte eta elkarrekin borrokatuko dugu, amatxo*, eta euskal preso politiko, iheslari eta deportatu guztiak etxeratu arte! ●





# HIZKI PIZTI

**Ikas dezagun irakurtzen eta idazten**

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**. Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

**Alfabetoko hizki bakoitzak** eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.  
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.




## Tailerrak

Irakurtzen eta idazten ikasiko dugu animaliekin jolasean. Umeentzat, irakasleentzat edo familientzat.

[solasaldiak@argia.eus](mailto:solasaldiak@argia.eus)

Egileak:

Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.





## GASTEIZ ANTZOKIA

# Arnasgunea arnasestuka

Aurreko mendeko azken hamarkadan, Bilboko Kafe Antzokiak lortu zuen erreferentzialtasunak kutsaturik, Gasteizen ere tankerako espazio bat sortzeko egitasmoa lantzen hasi ziren zenbait lagun. Ia 30 urte joan dira. Bide nekeza, gazi-gozoa eta gorabeheratsua izan da. Aurten, helmugatik metro batzuetara, antzokia bera eraikia dagoelarik, obligazio administratibo-burokratikoak jantzitako azken traba ezagutu da: proiektuaren bultzatzailea den Lazarraga elkarteak 113.000 euro zor omen ditu.

 RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA

**A**lde Zaharreko Errexala elkar-  
tean –hainbat urtez euskararen  
arnasgune izan zen Bagare taber-  
naren lokalean kokatua– elkartu gara  
Aiala Zaldibar eta Txema Ramírez de la  
Piscina Gasteizko Antzokiaren Aldeko  
Plataformako kideekin. Itxaropentsu,  
gogotsu eta haserre agertu dira. Gazi-  
gozoak erreparatu ditugu: hainbat urtez  
lan egin duten euskaltzale engaiatuak,  
alderdi politikoen adostasunak (eta go-  
roldioak), zenbat kokapen izan dituen  
(tartean Auzolana frontoian, gatazka itu-  
rri izan zena) edota espazioaren izena  
dela eta izan diren eztabaidak (ordu-  
ko udal gobernua Izaskun Arrue izena  
erabaki zuen, ez behar besteko adosta-  
sunez). Tartean, Oihaneder Euskararen  
Etxeak erakutsitako potentzialitatea ere  
bai: zazpi urteetan 900 ekitaldi, 67.000  
lagunen parte hartzea, hiru eguneko eki-  
taldi bat euskaraz.

### KONPARAZIOAK GORROTAGARRIAK DIRA

Montehermoso jauregian kokatu zen  
Oihaneder Euskararen Etxea 2015ean,  
eta 2022ko uztailean itxi zituen atea.  
Ordurako Ruiz de Bergara jauregiko lan-  
ak amaiturik zeuden, bertan zen atea  
zabaltzekoa Gasteiz antzokia, urte bereko  
Gabonetarako beranduenez. Baina, elkar-  
tearen eta administrazioaren arteko lan-  
kidetzan gako bat dago: administrazioa-  
ren lehentasuna izan edo ez izan. Zaldibar  
eta Ramírez de la Piscinaren esanetan,  
“Gasteizko Udalarentzat euskara ez da  
ardatza, alboko zerbait da, apaingarria”.  
Eta holakoetan, teknikariek, lizentziek,  
lizitazioek edo araudiek buruhaustek  
dakartzate bata bestearen atzetik.

Konparaziora, auzo berean –Gasteiz-  
ko Alde Zaharrean– kokaturiko Landatxo  
kiroldegiarekin izan zen prozesu parte-  
hartzailea: administrazioaren eta Alde

Zaharreko eragileen artean adostasunak  
lortu ondoren, bidea traba administra-  
tibo zuzen zen. Zaldibarrek eta Ramírez  
de la Piscinak beste bi adibide mahaigai-  
neratu dituzte. Aurkia: Martxoaren 3a  
dela eta, San Frantzisko eliza memoria  
gune bihurtzeaz oraindik ere bizi den  
tira-bira. Ifrentzua: Gasteizko antzokiko  
lanak hasi ziren garai bertsuan Espai-  
niako Bankuaren egoitza ohian sortu zu-  
ten Terrorismoaren Biktimen Museoa,  
2021eko ekainean atea ireki zituena,  
Espainiako errege-erreginen eta presi-  
dentearen parte hartzearekin.

Plataformako kideek, autokritika mo-  
duan, aitortzen dute beharbada konfian-  
tza gehiegi izan dutela instituzioetan.

### HELMUGAN HESIA

Lehen esan gisan, 2022ko udaran, laster  
bi urte, Gasteiz antzokiko lan nagusiak  
bukatuta zeuden. Zer gertatu da, orduan?



DOS POR DOS

Aiala Zaldibar eta Txema Ramírez de la Piscina, Gasteizko Antzokiaren Aldeko Plataformako kideak.

Politikariek agindu zioten Lazarraga elkarteari 2022an jarriko zela abian Gasteiz antzokia. Ondoren, “teknikarien esku” utzi zituzten ardurak, eta han agertu ziren lizitazioak, lizentziak, era guztietako araudiak... Epeak luzatzen hasi ziren, eta ezin ireki 2022ko urrian, ezin Gabonetan, ezin 2023ko udaberrian, ezta irailean ere... Eta, bat-batean, udalaren gutuna heldu zitzaion Lazarra-

ga elkarteari 2024ko Aste Santu aurretik: 113.000 euro zor duzue.

Gasteiz antzokiaren atea zabaltzeko Oihanederrekoak itxi zituztenean, aurrekontu bat onartu zuen udalak, aurrera eramateko programazio bat, ostalaritza jarduera bat eta beste. Aurreikusitako diru sarrera eta irteerekin. Baina antzokiak 2023 osoa itxita eman zuen.

“Lazarraga irabazi asmorik gabeko elkarte da”, azpimarratu du Ramírez de la Piscinak, azaltzeko elkarteak ez duela udalak eskatzen dion dirutza. *El Correo* egunkariak argitaratu du berriki zor gaurkotua: 117.000 euro; atzerapen interesak gehitu zaizkio hasierako kopuruari, eta halaxe gertatuko omen da hilerok. Udalak dio kontularien kontuak direla eta politikariak ezin direla sar-





Maiatzaren 17an hitza hartu zuen Gasteiz Antzokiaren Aldeko Plataformak Gasteizko Udaleko udalbatzan, eta aldi berean kontzentrazioa egin zuten herritarrek udaletxe aurrean. Argazkia: Arabako Alea

tu. “Udalak sortu du arazoa eta udalak konpondu behar du” aldarrikatu dute Gasteizko Antzokiaren Aldeko Plataformako kideek. Orain PSEko Mainer Etxebarria dago alkate, EAJren babesarekin; aurreko zortzi urteetan Gorka Urtaran jeltzalea alkate, sozialisten babesarekin.

### **MOBILIZAZIOAK**

Gauzak horrela, herritarrei dagokie Gasteiz antzokiaren defentsa egitea. Zaldibarrek eta Ramírez de la Pisciñan zerrendatu dituzte abian dituzten ekimenak: sinadurak biltzeko webgune bat abiatu dute, kultur gileen bideoak bultzatzen ari dira antzokiaren defentsan, eta hainbat mobilizazio egingo dituzte. Pasa den maiatzaren 18an Aldatu Gidoia ekimenaren manifestazioarekin bat egin zuten. Gogoratu dute Gasteizen, herri mugimenduen eta herritarren artean adostasun zabalak lortu direnean, garaipekin batzuk lortu direla, eta Gasteiz antzokiaren alde ere hala gertatzea espero dute.

Duela 30 urte, lehenengoz egitasmoa jorratzen hasi zirenetik, “Gasteiz eta Araba asko aldatu dira, kanpoko analista batzuk orain ohartu badira ere, eta

---

Politikariek agindu zioten  
Lazarraga elkarteari  
2022an irekiko zituela  
ateak Gasteiz antzokiak:  
itxita jarraitzen du

---

Gasteiz berri honi egokitzeko Gasteiz antzokia ezinbestekoa da, ez bakarrik euskaldunentzako arnagune izateko, euskaldunak ez direnak erakartzeko ere bai”, defendatu du Zaldibarrek.

### **GASTEIZ ANTZOKIA UDALBATZAN**

Maiatzaren 17an, ostiralarekin, Gasteiz antzokiaren inguruko bi ebazpen labur bozkatu ziren:

Bata, udal gobernua osatzen duten PSE-EAJrena: “Gasteizko udalbatzak udal gobernua premiatzen du Izaskun Arrue Gasteiz antzokia ahalik eta lasterren ireki dadin, lanean eta urratsak ematen segi dezan”. Hau da: udal gobernua osatzen duten bi alderdiek udal go-

bernua “premiatzen” dute agindutakoa bete dezan.

Besteia, Gasteizko Antzokiaren Aldeko Plataformarena, EH Bildu eta Elkarrekin udal taldeen babesarekin: “Udalak sortu duen arazoa, udalak berak konpon dezala, eta Lazarraga elkartearekin konponbide adostu baten bidez, Izaskun Arrue Gasteiz antzokia lehenbailehen abian jar dadila”.

Ez bata ez besteia ez ziren aurrera ateratu, gehiengorik batu ez zutelako. Gasteiz Antzokiaren Aldeko Plataformak saiatu zen udalbatzaren aurretik ebazpen bateratu bat adosten, eta bazirudien udal talde guztiek onartzeko moduko zerbait lortu zezaketela. Baina azken unean, Zaldibarren eta Ramírez de la Pisciñaren esanetan, EAJ-PSEk ez zuten ebazpen berria onartu: “Nahiago zuten, badaezpada ere, ‘Lazarraga elkartearekin adostasunez’ esaldia kentzea”.

Azken bi urteetan zer gertatu den jakiteko, bai eta hemendik aurrera zer gertatu daitekeen aurreikusteko ere, udalbatzan plataformako ordezkariak eta alderdiek esandakoak argigarriak dira:

PSEren jarrera erdaraz jardun zen Euskara Zerbitzuko ordezkari María Nanclaresek defendatu zuen. Azaldu zuen bere



DOS FOR DOS

alderdia duela urtebete hasi zela Euskara Zerbitzua kudeatzen. Aditzera eman zuen arazoa oinordetzan jaso dutela aurreko legealditik. Esan zuen gogor egin dutela lan Izaskun Arrue antzokia lehenbailehen ireki dadin. Aldarrikatu zuen lortu dutela antzokia ateak irekitzeko moduan egotea eta, beraz, Lazarraga elkartearen gonbidatu zuen giltzak hartzera. Alabaina, ohartarazi zuen udaleko kontularien eskaera dela diru hori itzultzea, eta legearen kontra ezin dutela jokatu. Plataformatik erantzun zioten udalak eskatzen duen dirutza tartean, giltzak hartzea burdin gori bat hartzea litzatekeela.

EAJko Iñaki Gurtubairena izan zen hitz hartze deigarriena, agian. Izan ere, inork leporatu ez zion zerbaiti erantzun zion aurreko legealdian Euskara Zerbitzuko ordezkari izan zenak: salatu zuen bazirudiela haiek ez zutela ezer egin euskararen eta antzokiaren alde, baina, galdetu zuen, nork jarri zuen dirua Oihaneder Euskararen Etxea sortu zedin, nork jarri zuen dirua Ruiz de Bergara jauregia Arabako Foru Aldundiaren eskuetatik berreskuratu eta eraberritzeko?

Nork? Herritarrek. Antzokia egitea udalalde guztiek aho batez onartu zuten, beraz, bozkatu duten gasteiztar guztiak “daude” atzean, eta udal gobernuari borondate hori kudeatzea dagokio. Batzuetan, ordea, poli-

tikariek denon dirua beren poltsikotik aterako balitz bezala hitz egiteko joera dute.

EH Bilduk, Maider Uriarteren ahotik, eta Elkarrekinek, Garbiñe Ruizenetik, Gasteiz Antzokiaren Aldeko Plataformaren ebazpena babestu zuten. Elkarrekin gobernuarekin elkarlanean aritu da, eta EH Bildu oposiziotik, baina, finean, bi taldeak ados zeuden esatean arazoa udalak sortu duela, eta Lazarragak ezin duela bere gain hartu sortu ez duen arazoa.

---

## Badirudi negoziazio bat zabalduko dela hurrengo egun edo asteetan

---

PPko Iñaki García Calvoren hitzak oso argigarriak izan ziren. Udalak sortu du arazoa, ez Lazarraga elkarteak. Zergatik? Udalak jakin bazekielako, edo jakin behar zukeelako, lanak ez zituztela garaiz bukatuko eta, aldiz, Lazarragarekin sinatu zuen kontratuaren diru-kopurua martxan zegoen egitasmo bati zegokiola eta ez ateak ireki gabe zegoen bati. Orain, ordea, nola askatu korapiloa? Beraiek ezin dute babestu legea urratu lezakeen konponbide-

rik. Bide batez, defenditu zuen PPK beti defendatu duela euskarak baduela halako espazio baten beharra.

### **BERAZ, ZER GERTA LITEKE?**

PSEk eta EAJk udalbatzan esan zuten, batetik, badirela formulak, ordainketa zatikatua kasu, Lazarraga elkarteak zorrari aurre egin diezaion eta hori proposatuko dutela. Eta, bestetik, frogatuko balitz zor horren zati bat udal gobernuaren kudeaketa akatsei dagokiola, hori bere gain hartuko luketela.

Badirudi negoziazio bat zabalduko dela oinarri horien bueltan, administrazioarekin zorretan dagoen elkarte bati ezin zaiolako kontraturik berritu, PP, EAJ eta PSEren esanetan. Orain ikusi behar da EAJ-PSE beren akatsak noraino onartzeko prest dauden, eta dirutan zer esan nahi duen horrek.

Eta azken gako bat dago: 90eko hamarkadatik hona hainbeste euskaldundu eta aldatu den hirian euskarari bultzada berri bat emateko (zeinean, besteak beste, 100 bat hizkuntza hitz egiten diren, duela 30 urte ez bezala), ezinbestekoa da Gasteiz antzokia herritar guztiek sentitzea bere, eta dagoen itolarritik lehenbailehen ateratzea Lazarraga elkartearekin adostasunez. Bestela, sortzezko arazo batekin jaioko da, norekin eta gehien elikatu eta bultzatu dutenekin desadostasunean. ●



“ ”

# Esloganetarako joera dago eta argi-itzalak aztertzeo aukera gutxi

June Fernandez

*Aingeruak eta neskameak. Haurdunaldi subrogatuei buruzko analisi feministak* saiakera argitaratu berri du Fernandezek Susa argitaletxearen Lisipe bilduman. Muturreko jarreretatik ihes egin eta gogoeta sakona egin du kazetariak: "Erraza da kontrako jarrera moral-politikoa izatea, baina askoz zailagoa da fenomeno globalizatu honi konponbide egingarri bat aurkitzea". Euskal Herriko hemeretzi feminista elkarrizketatu ditu liburua osatzeko.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  ESTI MAGUREGI

## Gai tabua da? Euskal Herrian patxadaz eta sakontasunez gaiaz hitz egiteko gai ez gara?

Tabua ez nuke esango, etengabe dago hedabideetan. Liburuaren zailtasun bat hori izan da, hain zuzen ere. Liburua bukatzen nengoen eta astero agertzen zen albiste berri bat denari buelta ematen ziona. Gaia informatiboki pil-pilean dago, baina aldi berean sakontasun falta igartzen da. Adibidez, bigarren kapituluaren gaiak euskal hedabideetan zer tratamendu jaso duen aztertzen dut eta sakoneko erreportajeak 2017koak ziren, Ciudadanosek lehenengo lege proposamena aurkeztu zuenekoak. Geroztik joera izan da albiste puntualak, aktualitateari lotutakoak, edo iritzi artikuluak,

askotan ildo jakin batekoak, oso kontra-koak, ateratzekoa. Nire premisa da esloganetarako joera dagoela, eta ertzak eta argi-itzalak patxadaz aztertzeo aukera gutxiago. Pasa den urtean, Bilbon, Alondegian biltzar bat egin zen haurdunaldi subrogatu bidezko guraso elkarteek antolatuta eta hor ikusi zen polarizazioa. Barruko diskurtsoak super propagandistikoak ziren eta kritika oso gutxi egon zen, eta kanpoan kontzentratuta zeuden eragileen leloak ildo honetakoak ziren: "Ugalketaren merkantilizazioaren kontra". Zer esan nahi du horrek? Zaku berean sartuko ditugu klinika pribatuetako intseminazioak, obodonazioak eta haurdunaldi subrogatua? Beharrezkoa iruditzen zait ñabardurez aritzea.

## Tabua da kalean?

Uf, hor bai. Herri guztietan dago familia bat guraso izan dena haurdunaldi subrogatu bidez. Gizarte eragileen aldetik, mugimendu feministarenetik adibidez, badago grina gaia modu kritikoan lantzeko, baina, aldi berean, kezka dago familiak ez ditugulako mindu nahi. Orea lortzea oso zaila da. Irantzuk [Varela] eta Katixak [Agirre] aipatzen dute "euskal guraso jatorren" figura: gure gertuko gurasoek ez dituzte umeak Indian "erosi" emakumeen etxaldeetan. Esango dizute Amerikako Estatu Batuetan edo Kanadan egin dutela, klase ertain-altuko gestantearekin, itzelezko harreman polita garatu dutela harekin, eta abar. Gertuko esperientziak dauzkazu eta ez



LISIFE,

atingeruak  
eta neskameak

haztekin eta  
atzeratuaren berriak

LISIFE-ERAZTEZ



dituzu pertsona horiek mindu nahi, baina sistema makro bat dago, industria bat, eta logika jakin batzuk feminismotik kritikatu nahi ditugunak.

### **Bi muturretako jarrerak ditugula diozu, edo alde edo kontra. Sinpleegia da? Horregatik idatzi duzu liburua?**

Sarreran esaten dut obsesioa daukadala eztabaida polarizatuekin. Nire grina bi mutur horietatik ateratzea da eta beste-lako irtenbideak topatzea.

Liburuan asko alderatzen da fenomeno hau prostituzioarekin. Amankomuneko faktoreak daude: emakumearen adostasuna, "nire gorputza nirea da"... Norbera sexu zerbitzuak saltzeko aske baldin bada, zergatik ez da izango ugalketa zerbitzu bat eskaintzeko? Sara Lafuente soziologoarentzat interesgarriagoa da etxeko eta zaintza lanekin alderatzea. 'Puteroaren' figura oso estigmatizatuta dago, aldiz, errazagoa, etaaldi berean zailagoa da eztabaidatzea etxeko langile egoiliarrez. Argi dago esklabotza erregimena dela, baina ulertzen dugu testuinguru honetan egiturazko faktore batzuk daudela: egoitzak oso garestiak dira, familiak gero eta txikiagoak, ez dago babesik pertsona zaharrak edo menpekoak etxean zaintzeko modu autogestionatuan...

Prostituzioaren eztabaidatik ikasi ahal dena jasotzea interesatzen zait, adibidez, polarizazioak ez duela ezer onik ekartzen, eta ni punitibismoaren kontra nago. Bide abolizionista jarraitzen denean arrisku asko daude, bereziki, umeak haien familiengandik banantzea, Frantzia eta Italia gertatu den moduan. Hori alde batetik, eta bestetik, lan intimoekin konparatzea interesatzen zait. Alokairuzko sabelen kontra dauden feministen argudio bat da etxaldeetan emakumeak giltzapetuta daudela ia 24 orduz lanean. Etxeko langile egoiliarren egoera hori da. Feminista horiek zergatik ez dute eskatzen etxeko langile egoiliarren erregimenaren abolizioa?

### **Hain zuzen, liburuan egin dituzun alderaketek galdetu nahi nizan. Esperientzia horiek balio digute gai honen ñabardurak azaleratzeko?**

Adibidez, feminismoan sektore abolizionistak multzo ideologiko moduko bat egin du prostituzioaren, alokairuzko sabelen eta generoaren abolizioaren alde. Era berean, interesgarria da nola Josebe Iturrioz aktibista kuirra sexu langileen borrokaren alde, noski genero autode-

terminazioaren alde, baina alokairuzko sabelen kontra dagoen. Berdin-berdin Miren Ortubay, eskubide penalean erreferente sexu lanaren despenalizazioa defendatzeagatik. Bi horiek esaten dute alokairuzko sabeletan subjektu protagonista ez dela emakumea, haurra baizik, eta ezin du kontratu pribatu baten protagonista izan.

Jule Goikoetxeak planteatzen duena ere interesgarria iruditzen zait. Berari berdin dio sexu, ugalketa edo zaintza lana den, inportanteena da gorputz desjabetuak daudela erdigunean eta jarduera bat edo beste, kapitalismo heteropatriarkalaren menpe gaudela.

Tere Maldonadok oso ondo azaltzen du zailtasun filosofiko bat, hau da, hemen moral kontuak ere badaudela, pisua daukatela; eta morala oso subjektiboa da. Adibidez, feminismoan obuluak ematea kritikatu egin



Ez dituzu gertuko pertsonak mindu nahi, baina sistema makro bat dago, industria bat, eta logika jakin batzuk feminismotik kritikatu nahi ditugunak

da, baina orokorrean ez du horrenbeste asaldaten. Deigarria egin zitzaidan, Pablo [Bilbao] Gure Umeen Ametsak elkarteko bozeramaileak aipatutakoa: bere gestantea ez litzateke prest egongo obuluak emateko, karga genetikoa lagatzeak pisu sinboliko handiagoga daukalako bere sabelean pertsona bat ernaltzeak baino.

Korapilo bat da; praktika hori gure parametroen arabera epaitzen ari gara, baina beste herrialde batzuetan gauzatzen da, non balio sistema desberdina den. Terek oso ondo esaten du: Non dago muga? Zer adostasun sozial dira oinarritzkoak? Badirudi organoak ez saltzea adostu dugula, baina besteentzat ernaltzea batzuentzat onartezina da eta beste batzuentzat ez da arazo morala. Apasionantea egiten zait.

### **Zeure esperientzia kontatu duzu. Zuk zeuk iritzi aldatu duzu?**

Bai, etengabe. Uste dut elkarrizketa baikoitza egin dudanean aldatu dudala. Adibidez, filosofian, Tere Maldonadok esaten du arazoa ez dela praktika bera, baizik eta kapitalismoak gaiztotzen duela, zeren berez besteentzat ernaltzea polita izan daiteke. Ados. Eta entzuten dut Josebe, eta dio: hau ez da kapitalismoaren praktika bat gehiago, nuklearra da, kapitalismo bioteknologikoaren ildo super estrategikoa. Egia da! Horrela egon naiz etengabe. Oso kontra daude Katixa eta Irantz, eta nire burua zalantzan jarri dut: erlatibismo moralean erori al naiz? Hain da argia eta erlatibizatzen nago? Baina Pablorekin gelditzen naiz, bere argudioak entzuten ditut, eta aurreiritzi asko desmuntatzen dizkit.

Bestalde, nire lana ere izan da elkarrizketatuen argudioak bestelako iturriekin kontrastatzea.

### **Helburu zehatza euskal feministen arteko diskurtso kolektiboa sortzen laguntzea dela diozu. Zein parametrotan ari da eztabaidan mugimendu feminista?**

Euskal Herriko Mugimendu Feminista, jabeakuntza eskolak eta emakumeen etxeak 2017tik ari dira gai honi buruzko eztabaida guneak antolatzen. Libururako elkarrizketatu ditut mahai-inguruetan hizlari izandakoak: Itziar Alkorta, Ianire de la Calva, Josebe Iturrioz eta Norma Vázquez. Kontua da barne-eztabaida feministako sakontasunaren aurrean, kolektiboen komunikatuak gizarteratzen direla eta, esan bezala, horietan lelo itxiak gailendu ohi dira, esaterako ugalketaren merkantilizazioaren kontrakoa, edo genero-klase-arraza ardatzen inguruko irakurketa sinplistik.

Horien aurrean, nabarmentzekoa da EH Bilduko batzorde feministak 2017an plazaratutako eztabaidarako txosten mardula. Itziar Alkortak defendatzen duenaren ildotik jo zuten: ikusita fenomeno globalizatua dela, eten ezina, familiak bide hori erabiltzen ari direla, gurean arautu dezagun, modu burujabea, giza eskubidek ardatz, diru-truke barik, epailek gainbegiratu eta Osakidetza kudeatuta; eta hortik kanpo gelditzen den guztia debekatu dezagun. Hor ere kontraesanak daude, baina diskurtso interesgarria da. Oihana Etxebarrietak kontatzen du nahiko bakarrik eta ez oso ondo ulertuak sentitu zirela.



**Gai honetaz hitz egiterakoan, ekuazioan, hiru ardatz kontuan hartu behar direla diozu. Lehenengoa da bioteknologia. Mugak jartzea behar dugu?**

Deigarria da orain ari garela haurdunaldi subrogatuen afera debatitzen, gai berria izango balitz bezala, baina horren kontra egiteko zailtasun bat da AEBetan 40 urte daramatzatela praktika horrekin. Egonkortuta dagoen negozioa da, ezin da hain erraz desmuntatu. Pablok esaten zidan etsigarria egiten zaiola ikustea feminismoa modu abstraktuan hitz egiten, begiratu beharrean 40 urte daramatzaten herrialdeetan zein garapen eman den, eta abar. Bestetik, umetoki artifizialak hor daude. Amaia Pérez Orozcok liburuan zuhurtziaren beharra aipatzen du, merkatuak frenatzea. Merkatu bioteknologikoaren gosea itzela dela dio, lehen langile klasea ginen eskulana eta orain zuzenean gure gorputzetik ateratzen da etekina. Bai, zuhur jokatu beharko genuke. Fikzioaren kapituluak aipatzen nuen distopien beharra. Nik ez daukat gaitasun hori, baina aurreratzea behar dugu. Zer gertatuko da umetoki artifizialak hedatzen direnean?

“

Tere Maldonadok oso ondo esaten du: non dago muga? Badirudi organoak ez saltzea adostu dugula, baina besteentzat ernaltzea batzuentzat onartezina da eta beste batzuentzat ez da arazo morala

**Bigarren ardatza haurdunaldi subrogatua praktika globalizatua dela da.**

Itziar Alkortak atsekabez onartzen du eredu altruista legezatu duten herrialdeetako (Australia, Erresuma Batua...) joera: jende askok atzerrira joaten jarraitu du errazagoa delako prozesua eredu merkantilista daukan herrialde

batean egitea. Gainera, merkatuak itxi eta ireki egiten dira. Tailandian eta Australian legea zorroztu zen, eta herrialde horietako klinika pribatuek filialak ireki zituzten Asiako beste leku batzuetan. Negozioak berdin-berdin jarraitzen du funtzionatzen. Horregatik, zergatik gai honek zirrara eragiten didan? Rubiken kubo bat askatzea bezala da, niretzat ezinezkoa da. Legegintzaren kapituluak lantzen dut: nora garamatza arautzearen bideak, nora garamatza debekuarinak... eta horma bat topatzen dut.

**Eredu komertzialaren alternatiba altruismoa da?**

Altruismoa behin eta berriro zalantzan jartzen dugu liburuan. Emakumeak prekarizatzeke modua da. Zer eta zergatik da zilegiago besteentzat ernaltzea maitasunagatik eta eskuzabaltasunagatik eta ez norberaren egoera materiala hobetzeko? Nahiz eta gurean eredu altruista finkatu, guraso elkarteek, bere garaian, Ciudadanosen proposamenaren alde egin zuten. Eredu hura altruista zen, baina ordainarekin. Horrek esan nahi du merke saltzen dugula gure lana, eta gainera defendatu behar dugu ez dugula diruagatik egiten, baizik eta emakume onak garrelako.



Azken urteotan, badirudi, guraso elkarrean apustua dela eredu altruista diru truke barikoa legezkatzea. Iruditzen zait horren alde egin dutela ikusi dutelako gizartea ez dagoela prest bestelakoa onartzeko. Hor dagoen kritika bat da, eta bat egiten dut, eredu altruista legezkatzen baldin bada praktika horren normalizazioa ekar dezakeela, eta hurrengo pausoa merkantilizazioa litzateke.

### Liburuan eredu erlazionalak, elkarrean artean garatutako ugaltze eta hazte kolektiboak aipatu dituzu.

Irtenbide bat izango litzateke legea aldatzea. Hego Euskal Herriaren kasuan, Espainiako Kode Zibilak ezartzen du ume batek bi guraso baino ezin dituela izan. Borja Muñoz EHGAMeko aktibistarekin horri buruz mintzatu gara, nola ume batek hiru guraso izateko aukera izango balu posible izango litzatekeen gestanteari aitortza ematea eta baita guraso izan nahi duten, adibidez, gizonezko bikoteari ere. Estimulantea egiten zait merkatura jo ordez, ikustea pertsona bat prest dagoela gametoak emateko, beste batek ernaldu nahi duela, beste batzuek nahi dutela haien etxean hazi, eta denak izan ahal dira umearentzat figura erreferenteak. Umeei begira, oso diferentea da beste herrialde batean diruagatik egin duen pertsona batek ekoiztua izatea edo gertuko prozesu bat izatea, non umeak bere jatorria ezagutzen duen, eta abar.

Elixabetek [Imazek] ironizatzen du eta dio AEBetan edo Kanadan ernaldu duten gurasoek esaten dutela gestantea "gure familiakoa da", urtean behin dator oporretan eta familiakoa da. Ez litzateke bideragarriagoa izango gure artean egitea, komunitatean?

Bestalde, ordea, nahiko bide utopikoa da, gizarte super indibidualista eta atomizatuan bizi garelako. Guraso askok esaten dute: nik ez daukat horrelako fantasia bat eraikitzeke aukerarik.

### Zein da urgentzia?

Estatuek eta botere judizialak ikusi dute umeen filiazioa bermatzea premiazkoa dela. Europako instituzioek esan dute haurdunaldi subrogatua esplotazio praktika bat dela, debekatu behar dela... baina joera da umeen filiazio eskubidea erdigunean jartzea. Beraz, umeak babestea lehentasun bat da, baina zer da umeak babestea? Kontra dauden feministek esaten dute familia horiek erabaki dutela ume bat sortzea egoera irregularran. Ama *bolloa* naizen aldetik, nire

“

Haurdunaldi subrogatuaren praktika gure parametroen arabera epaitzen ari gara, baina beste herrialde batzuetan gauzatzen da, non balio sistema desberdina den

borroka baldin bada nire umearen beste amaren, ez gestantearen, amatasunaren aitortza bermatzea, zergatik ez beste ereduetan? Izututa baldin banago nire umeak administratiboki ama bat galduko duelako, nola ez dut enpatizatuko subrogazio bidezko familiekin?

Kezka gehiago: nola uztartu sistema horri kritika egitea, eta umeen eta familien kontrako estigmatizazioa saihestea. Familien aldarri bat da erreferente positiboak izatea. Pablok kontatzen zuen kontserbatorio batean agertu zela pankarta bat esaten zuena alokairuzko sabelak esplotazioa direla. Kontserbatorio horretara joaten ziren ume batzuk haurdunaldi subrogatu bidez ernalduak ziren.

“

Eredu altruista legezkatzen baldin bada, praktika horren normalizazioa ekar dezake, eta hurrengo pausoa merkantilizazioa litzateke

**Liburua idazterakoan buruan zenituen hainbat galderari erantzun diezu ala lehen baino gehiago dituzu?** Antzeko jarraitzen dut. Liburua 2023an egin nuen, baina 2018tik ari naiz gaia

lantzen, eta korapiloak ez dira askatzen. Zerk egiten du pertsona bat ama? Kontratuak? Gameto bidezko lotura biologikoak? Edo ernaldu eta erditu izanak? Nire ustez, gurasotasunak soziala izan behar du. Korapiloak itzelak dira. Adopzioa ez dugu aipatu eta interesgarria da. Hasieratik defendatu dut diskurtso sinplistik ez egitea: "Ez erosi haurrak, adoptatu itzazu!" edo "irtenbidea da adopzioak erraztea". Diskurtso hori ez da egokia, hain zuzen ere adopzio sistema zaildu egin da abusuak saihesteko. Beste bat: "Guraso horiek narzisistak dira zeren lotura genetikoak izan nahi dute", bada beti ez da egia, harrigarria egin zait ikustea guraso askok adopzio-prozesuak egin edo hasi dituztela, eta beste askoren kasuan semena zein obuluak donanteenak direla... Eta gainontzekook lotura genetikoaren garrantzia alboratu dugu? Edo esatea haiek beraien umeak ondasuntzat dituztela, eta gainontzekook ez? Adopzioan ere, zaila izan da onartzea umeen jatorria ezagutzeko eskubidea. Subrogazio bidezko familien elkarrean umeen jatorria ezagutzeko eskubidearen alde daude.

Nire obsesioak ez dira aldatu prozesuan. Beste obsesio bat ikuspegi anticoloniala eta antiarrasista da. Gure diskurtso batzuk... salbatzailearenak dira. Indiako emakumeen etxaldee buruz hitz egiten dugu oraindik ere, kontuan hartu gabe gobernuak aspaldi itxi zietela atea atzeritarrei, baita eredu altruista ezarri ere. Norma Vázquezek eta Cristina Zamorak azaltzen dute feminismo zuriaren diskurtsoa oso etnozentrikoa dela, esaterako atxikimenduzko teoriari lotutakoa.

Ijitoen ekarpena ere interesgarria da. Tamara eta Mari Mar Clavería haurdunaldi subrogatuaren oso kontra daude, baina nabarmentzen dute haien kulturaren dinamika komunitarioak daudela. Norbaitek ezin badu seme-alabarik izan iloba baten hazkuntza egingo du edo gehiago inplikaturiko da amabitxi edo aitabitxi moduan.

Hasieratik neukan premisa: begirada zabaltzeko beste kulturetatik ikasi; eta indartu egin dut. ●



## POL TSA KONPOSTAGARRIAK

# Ingurumenerako mesede ala kalte?

*Plastiko konpostagarritzko poltsak ohikoak baino toxikoagoak dira* titularra irakurri genuen iazko urrian Elhuyarren. CSIC Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko adituen ikerketa batean zegoen oinarritua albiste, eta zalaparta handia piztu zuen. Garazi Zabaletak Zamudioko Titan Eco Sostenible film konpostagarrien enpresako Patxi Sustatxa kidearengana jo du, gaia argitzera.

 GARAZI ZABALETA



**P**lastikoaren erabilera masiboa pixkanaka ordezkatzeko eta ustez kontsumo sostengarriago baterantzko bidea hasia da Europako herrialdeetan azken urteotan. Konpostagarriak diren poltsak eta bilgarriak gero eta ohikoagoak dira inguruko saltokie-

tan –oraindik plastikoaren erreinuak indarrean jarraitzen duen arren–, eta jendartean ere, badirudi gero eta kontzientzia handiagoa dagoela gaiarekiko.

Baina, halako batean, ikerketa batek guztia zalantzan jarri du: *Plastiko konpostagarritzko poltsak ohikoak baino*

*toxikoagoak dira* titularra irakurri genuen iazko urrian *Elhuyar* aldizkarian eta webgunean. Gurean ez ezik, Euskal Herritik kanpo ere zalaparta handia piztu zuen, izan ere, CSIC Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko adituek irailean argitaratutako ikerketa



batean zegoen oinarritua albistea, eta, beraz, bazuen sinesgarritasunik. “Zertan ari gara plastikoa kentzeko esfortzua egiten, orduan?”, galdetuko zuten askok, albistea irakurritakoan.

Egia da, eta agian ez zuen hainbesteko zabalpenik izan, CSICek berak, kontua argitze aldera, azalpena argitaratu zuela bi hilabete beranduago, iazko azaroan: “Aurreko prentsa oharrak izan duen inpaktu mediatikoa dela eta, eta material biodegradagarri konpostagarrietarako aldaketa sozialari kalterik ez eragiteko, CSICetik argitu nahi dugu azterlanak ez duela frogatu ziurtagiridun poltsa konpostagarriak gizakientzako toxikoak direnik elikagaiak garraiatzerakoan, ezta horietatik lortutako konposta ere”. Zazpi mediatikotik harago, eta gaian gehiago sakontzeko asmoz, Zamudioko Titan Eco Sostenible film biodegradagarri eta konpostagarrien enpresako Patxi Sustatxa kidearekin solastu gara.

### KONPOSTAGARRI, BIRTZIKLATU, BIODEGRADAGARRI... KONTZEPTU SALTSA ARGITZEN

“Askotan kontzeptuak nahasi egiten dira, eta batzuetan bezeroek ‘biodegradagarri’, ‘konpostagarri’ edo ‘birtziklatu’ hitzak darabiltzate gauza bera balira bezala”, dio Sustatxak. Bakoitza zertan datzan azaltzeko eskatu diogu.

**Material birtziklatua** prozesu fisiko baten bidez produktu bat beste produktu bat bihurtzean datza. Birtziklatutako materialak, poltsen eta ontzien kasuan, normalean, plastikoa izaten du jatorria: plastiko zaharra hartzen da, txirbilak egiten dira, eta txirbil horiekin beste ontzi edo poltsa bat sortzen da.

**Material konpostagarriak** landareetan du jatorria, eta ez dira birtziklatzen, beste erabilera baterako balioa hartzen dutela da gakoa. “Beren bizitza bukaerako helburua ez da txirbilak egitea horrekin beste material bat sortzeko, baizik eta konposta egitea. Eredu zirkularra da: lurrun du jatorria, eta lurrera doa ziklo bukaeran”. Plastikoa konpostagarriak PLA sigladun –azido polilaktiko– materialez eginak egon daitezke, esaterako. Artoan edo azukre-erremolatxan izan ohi dute jatorria horiek.

**Biodegradagarri** hitzak, Sustatxak nabarmendu duenez, berez, ez du ezer esan nahi. Biodegradazioa produktu bat bere osotasunean degradatzea iritsi arteko prozesu naturala da. “Denboraren faktorea da hemen garrantzitsua, ez

baitu ezertarako balio esateak produktu bat biodegradagarria dela 400 urte behar baditu horretarako, plastikoak bezala”, dio. Salatzen duenez, hitz hau eta beste asko darabilte enpresa ez oso jasagarriek euren burua, nolabait, zuritzeko –edo, hobe esan, berdetzeko–.

“Europako arautegia betetzen duen material konpostagarri batek ez du kutsadurarik sortzen”

Azpmarratzekoa da, bestetik, landareetan jatorria duten bioplastiko guztiek –gaztelaraz ‘*bio-basados*’ edo ingelesez ‘*bio-based*’ bezala ezagutzen direnek– ez dutela zertan konpostagarriak izan. Alegia, bio jatorridun plastikoez jatorriari soilik erreparatzen diote, eta, konpostagarriek, berriz, haien bizitzaren bukaerari. Polietilenoak, esaterako (PET siglez ezaguna), landare jatorria izan dezake, azukre-kanaberatik eratorritakoen kasuan, adibidez, baina ez da biodegradagarria, ingurumeneko mikroorganismoek ez dutelako gaitasunik material hori konpost bihurtzeko.

### IKERKETAREN ARGIAK ETA ITZALAK

Irailean argitaratutako ikerketan poltsa biodegradagarrien, plastikozko poltsa arrunten eta birtziklatuen toxikotasuna neurtu zuten, zebra-arrainen zelula-lefroetan hartutako datuetan oinarrituta. Hiru egoeratan neurtu zuten toxikotasun maila: zuzenean poltsen laginetatik; poltsen zahartzea fotodegradazio –izpi ultramorez– bidez simulatu ondoren; eta konpostatu ondoren gelditzen diren poltsen zatitxo txikiak hartuta. “Harritu gintuen plastiko arrunteko poltsen eraginpean jarritako zelulek toxikotasunik ez erakusteak, eta bai, aldiz, biodedragarrien kasuan”, azaldu zuen Cinta Porte ikerketaren egile nagusiak. Biodegradagarriak bezala, birtziklatuak ere ohiko poltsak baino toxikoagoak direla ondorioztatu zuten ikerketan.

Baina, ikerlariak honakoa erantsi zuen segidan: “Poltsa biodegradagarriak egiterakoan, fabrikatzaileek bereziki toxikoak izan litezkeen gehigarri kimikoak erantsen dituztela da gure hipotesia”. Sustatxak ere hori nabarmendu du ikerketaren emaitzez galdetzerakoan:


“Hasteko, kontuan izan behar da aurreiazko informe bat zela, onartzen zuten gehiago sakondu beharra zegoela. Baina, gainera, bertan zioten material biodegradagarria ez dela bere horretan arazoa, horri erantsitako gehigarri kimikoak baizik”.

Enpresari bizkaitarrak azpmarratu duenez, film biodegradagarri gehiena kanpotik inportatzen da gaur egun, eta horren gaineko kontrolik ez da egiten. Ikerketaren egileek ez dute zehaztu ze poltsa erabili zituzten lagin moduan. “Imajinatu janari azkarreko enpresa batek informe bat ateratzen duela, esanez, tomateak osasunerako hanburgesak baino kaltegarriagoak direla, tomateen ikerlan bat egin dutelako eta kutsatzaile asko dituela ondorioztatu dutelako. Baina, aztertutako tomate horiek Europako araudiaren arabera ekoitzi dira? Zeren, ez bada horrela, eta araututa dagoena baino askoz fitosanitario gehiago badaramate... noski kaltegarriak direla”, adierazi du. Bada, antzeko zerbait gertatzen da poltsa eta ontzi biodegradagarrien kasuan, bere arabera.

### MATERIAL KONPOSTAGARRIAREN EKOIZPENA, MULTINAZIONALEN ESKU

Titan Eco Sostenible enpresako kudeatzaileak salatu duenez, desfase ikaragarria dago kanpotik ekartzen den film biodegradagarriaren kontrolean: “2018an, erabilera bakarreko plastikoa mugatzeko legea sartu zen indarrean, eta hasieran erabilera asko murriztu zen arren, honezkerok eraginkortasuna galdu du, legea ez baita betetzen, inolako jarraipenik ez delako egiten”. Komertzioetako plastikozko poltsen erabilera mugatzen du, teoriarik, legeak, baina Sustatxak dio gaur egun denda oso gutxi betetzen dutela. “Saltoki handiek eta gutxi gehiagok betetzen dute. Orokorrean, polietileno konbentzionalera bueltatu da merkataritza, ezta birtziklatutakora ere”, erantsi du.

Europar Batasuneko herrialdeetan ekoizten den film konpostagarriak, orokorrean, EU 13432 araua errespetatzen duela dio bizkaitarrak. Arau hori da poltsa eta bilgarri konpostagarriek bete beharreko neurriak zehazten dituen normatiba: “Oinarrian, arauak dio produktua sei hilabete baino gutxiagoan degradatu behar dela eta degradazio prozesuan soilik ura, CO2a eta konposta utzi behar dituela”, Sustatxak azaldu duenez.



Araua betetzen dela bermatzeko ziurtagiri-emaile desberdinak daude, baina Europan ezagunena TÜV Austria dela dio enpresariak. "Zertifikatzea, dena den, ez da derrigorrezkoa, konfiantza irabazteko egiten dugu. Guk, adibidez, ziurtatutako produktua erosten dugu", adierazi du. Izan ere, Zamudioko lantegian ez dute film biodegradagarririk ekoizten, eraldaketara mugatzen dira. Ekoizpena multinazional eta enpresa handien esku dagoela nabarmendu du kudeatzaileak. "Gu mekanizazioa mugatzen gara, baina, jatorrian, enpresa handiak dira guztiak, eta plastiko konbentzionalarekin eta konpostagarriarekin, biekin lan egiten dutenak".

Nolabait, energia trantsizioan eta ekonomia berdean negozio aukera ikusi duten enpresak dira nagusi konpostagarrien merkatu horretan ere.

## PLASTIKO IRLEN ALDEAN... GAITZERDI

Greenpeacen datuen arabera, urtero 12 milioi tona plastikok baino gehiagok bukatzen dute itsasoan; guztiok ditugu buruan plastikoz osatutako irla erraldoien irudiak. Eta, plastikoen artean, plastikozko poltsak dira zabalduen daudenetakoz batzuk. Espainiako Estatuan, batez beste, pertsona bakoitzak, urtean, erabilera bakoitzeko 144 plastikozko poltsa botatzen

dituela kalkulatu da, eta horietako bakoitzak 12 minutuko bizitza laburra duela. Degradatzen, berriz, bost hamarkada baino gehiago ematen dituzte.

"Plastikoaren arazoa zein da? Birtziklatzen edo berrerabiltzen ez den plastiko portzentajea oso altua dagoela, naturan abandonatua gelditzen dena. Alegia, birtziklatzen den plastiko kopurua baino askoz gehiago ekoizten dela, eta plastiko hondakin tonak eta tonak sortzen dituela". Aldiz, konpostagarriak balira naturan abandonatuak diren milaka tona plastiko, berez, urte gutxitan degradatu eta konpost bilakatuko lirakeke. "Bioplastikoak orain artekoak baino askoz jasangarriagoak diren zalantzarik ez dago, baina, kontua da, planteatzen diren alternatiba berriak gizartean onartzea askoz gehiago kostatzen dela. Alternatiba horiek akats txiki bat izatea nahikoa da, baztertuak izateko". Sustatzak portaera sozial horren baitan kokatzen du iraileko azterlanak sortutako zalapartaren eragina ere.

## ORDUAN... POLTSA KONPOSTAGARRIAK BARATZERA BAI ALA EZ?

Konpostatzea degradazio prozesu artifiziala dela gogorarazi du Sustatzak, produktua jango duten bakterioentzako hazkuntza-likidua sortzen delako. Konpostatze industrialak bakterio gehiagoko

hazkuntza-likidua eta tenperatura altuagoak lortzen dituzenez, indartsuagoa da prozesua. "Etxean konpostatu daitekeen edozer konpostatzen da planta industrialetan, baina, alderantziz, ez", dio. Gehitu du, dena den, Titan Eco Sosteniblen darabiltzaten film gehienek, material fina direnez, etxeko konpostean ere funtzionatzen dutela. "Kontua da, Espainiako Estatuan nagusi den konpostatze eredua industrial dela, eta horregatik, 'industrial compost' zigitua erabiltzen da gehien". Poltsa gehienak etxean ere ongi konpostatuko lirakekeela dio, baina, bestelako material konpostagarriek, edalontziek edo mahai-tresnek, planta industrialetan funtzionatzen dute soilik. "Tira etxean ere konpostatuko lirakeke, baina denbora gehiago beharko lukete, eta EU13432 arauak sei hilabeteko muga ezartzen du".

Bizitza jasangarrietatik urrun gaude Europako eta Mendebaldeko gizarteak, eta plastiko konbentzionalaren erabile-ra murriztearekin eta konpostagarriena handitzearekin soilik ez diegu egungo erronka klimatiko eta sozialei erantzunen. Baina, hala ere, Sustatzak argi du poltsa eta bilgarri konpostagarriek jasangarritasunari begira izugarriko aurrerapausoa ekarri dutela. "Europako arautegia betetzen duen material konpostagarri batek ez du kutsadurarik sortzen", amaitu du. ●



# E-CHO PROIEKTUA

## Pirinioetako oihanak, abioiak hegalarazteko erregai

E-CHO izenaren gibelean gordetzen den makroproiektuari so jarri gara, Zuberoatik hurbil, Biarnoko Lacq herrian egitekoa den egitasmo omen ekologikoa hurbilagotik ezagutzeko asmoz. Hiru gune industrial lituzke: hidrogenoa ekoizteko fabrika erraldoi bat, eta hegazkinentzako eta itsasontzientzako erregai "berdeak" ekoizteko lantegi bana. Mugimendu ekologista kezkatzen duen proiektua da, besteak beste, inguruko oihanetatik lortu biomasa lukeelako energia-iturri. Makroproiektua izanik, deforestazio masiboa eraginen luke: 14.000 hektarea desagertuko lirateke lehen bost urteetan.

### JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**V**ictor Pachonekin bildu gara, oraindik ezezagunegia den E-CHO proiektuaz hitz egiteko. Ipar Euskal Herriko ekologista ezaguna dugu, ingurumenaren alde diharduen CADE elkartearen buru belarri dabilena aspaldian. Iazko urte hondarrean borroka esparru berri bat ireki zitzaizen hari eta inguruko beste ekologistei: Zuberoatik hurbil den Biarnoko Lacq herrian xede duten hidrogenoa eta bioerregaiak ekoizteko E-CHO makroproiektua. Karbono isurketa gutiko erregaien ekoizpenean berezituriko Elyse Energy enpresa frantsesa dugu maniobran.

Hidrogenoa lortzeko bidean, elektrolisia ezinbesteko urratsa izaten da: elektrizitatearen bidez substantzia baten osagaiak banatzeko prozesua da, adibidez uraren kasuan hidrogenoa eta oxigenoa banatzen ditu. Bertan eraikitzeak duten elektrolisirako espazioak 30 hektareako handitasuna luke –gaur egungo munduko handiena Txinan da

eta hori baino bi aldiz handiagoa litzateke-. Bertatik urtean 72.000 tona hidrogeno ekoiztekoak dituzte. "Neurrigabeakoa" Pachonen arabera.

Hidrogenoa sortzeko prozesuan erabilitako energia beharrari behatzerakoan hasten zaigu "energia berdea" etiketaren pean sailkaturiko energiei buruzko eztabaida. Hain zuzen, Pirinioetako milioika zuhaitzen mozketatik lorturiko biomasa-ri esker edota nuklearretik eskuratzekoa dute elektrizitatea. Gaia are "zentsugabeakoa" bihurtzen zaigu jakitearekin, finean, hegazkinak eta itsasontziak "erregai berdez" ibilarazteko baliatuko dutela emaitza. Hain zuzen, hidrogeno hori baliatuko dute Lacq herrian kokatzekoak dituzten Biotjet eta eM-Lacq lantokiek; lehenak, hegazkinentzako kerosenoa ekoizteko eta bigarrenak, itsasontzientzako metanola sortzeko. Elyse Energyren datuei begiratuz gero, ohartzen gara hiru guneen artean erabilitako energia sorturikoa baino 1,8 aldiz handiagoa litzate-

keela –eta hori, garraioak kontuan hartu gabe-. "Alferrikakoa eta zentsugabeakoa", Pachonen hitzetan.

E-CHO makroproiektuaren gibelean gordetzen dena azaleratzen dabilta bilkura publikoz bilkura publiko, CADE eta aurka antolatutako beste 59 egitura. Apirilean egon ziren Nafarroa Beherean, Aiherran eta Donapaleun, eta ekainaren 7an Zuberora doaz, Maulera. Lehenik eta behin, energia ekoizteko beharrezkoa izanen den biomasa kopuru erraldoian jartzen dute arreta: 14.000 hektarea oihan moztuko lituzkete lehen bost urteetan eta ondotik, urtero 1.170 hektarea lirateke desagertuko. Lacq herritik 200 kilometro inguruko zuhaitzak dituzte jomugan, hots, begibistan dituzte Ipar Euskal Herriko basoak ere. Iratiko 20.000 hektareak hamabost urtez desagertuko lirateke.

Frantziako Estatuko gisa bereko beste egitasmoei begiratzerakoan, geroa argi du Pachonek: "Brasilgo Amazonia-



DANI BLANCO

Luzaz CO2a xurgatzeko putzuak izan dira oihanak, baina deforestazioak direla eta, gaur egun, CO2a xurgatzeaz gain, askatzen ere du gas hori.

ko edota Kanadako baso primarioetako zuhaitzak inportatzen bukatuko dute hortik gutira, bertako guztia xehaturik". Oihanen kudeaketa industrialak ekarri ohi duen mozketak masiboek kezkatu-rik dira ekologistak. Gaur egun mozketak mota hori ez du debekaturik gobernuak eta funtsean, horrelakoak baztertzeko konpromisoa "hartu ezinean" dela aitorturik du Elyse Energyk.

"Ez-jakintasuna" nagusi dela dio Pachonek: ez dakigu zein arbola barie-tate erabiliko dituzten, ez dakigu oihan pribatuetara edota publikoetara joko duten... Oro har, datu eta ikerketa anitz eskas dira enpresaren dokumentu ofizia-letan: "Abenduan hastekoa dute inkesta publikoa, eta bizkitartean eskura jarri beharko dituzte eskas diren hamabost bat ikerketa, tartean, karbono-bilanare-na edota eragin sozioekonomikoarena".

Promotoreek oihanari buruzko ikus-pegi "murriztua eta okerra" dutela dio aurkako mugimenduak. Hain zuzen,

etengabean berrituz doan ondasun natural gisa daukate, baina izaera hori iraganekoa dela diote: "Azken bi hamar-kadetetan biziki emendatu da oihana, ba-

---

"Finantzariak dira. Ikusi dute badagoela hor sosa errazki egiteko aukera, karbonorik gabeko energientzako dirulaguntzak ihiztazten dabilta"

**Victor Pachon**

tez ere baso publikoetan, baina azken urteetan tendentzia beste aldera doa, aldaketa klimatikoagatik ahulagoak di-relako zuhaitzak edota mozketak masi-

boengatik. Duela hogeit urteko zenba-kien arabera egin dute kalkulua, baina horrek ez du balio", dio Pachonek. Klima aldaketaren eraginez, bertako basoeta-ko zuhaitzen hilkortasuna %80 emenda-tu da azken hamar urteetan, Frantziako Basoen Inbentarioa egituraren arabera. "Gero eta sute gehiagok planetako birika berdeak hondatzen dituzten honetan, eta klima gero eta gehiago berotzen ari denean, hegazkinen kerosenoa ekoizte-ko azken karbono-putzuen suntsitzeko gogoia nola ukan dezakegu?", irakurri liteke oraingoz 12.400 herritarrek izen-peturiko petizioan.

Karbono putzu garrantzitsuak direla eta, inoiz baino beharrezkoagoak ditugu basoak, eta bidea babestearena eta zain-tzearena izan beharko litzateke. Baina ez: deforestazioaren norantzan doaz aginta-riak eta hori horrela, Klimaren Goi Kon-tseiluaren datuen arabera, duela hamar urte baino bi aldiz karbono gutxiago xur-gatzen dute Frantziako Estatuko oihanek.



Alderantziz, lurpean bildutako CO2 parte bat askatzen ere dute gizakiaren aktibitateengatik –deforestazioengatik zein lur horien manipulazioengatik–. *Nature Climate Change* aldizkariak dio munduko oihanek urtean 16.000 milioi tona CO2 xurgatzen dituztela, baina beste 8.100 milioi tona askatuz. E-CHO makroproiektuaren karbono-bilana egiterakoan hori guztia kontuan hartu beharko dela dio Pachonek.

Oihanen biomasaz gain, laborantzatik eta hondakin berdeen errekupeziotik ere lortu nahi dute energia. Pachonek argi du: "Banan-banan zabor berdeak errekupeziotik dituztela? Hesi zaharrak han eta paleta hautsiak hemen? Ez, kostu handia luke horrek eta murriztu nahiko dute. Oihaneko biomasa lehenetsiko dute ekoizpen kostu interesgarriagoa ukanik". Gainera, errekupeziotik hori bermatzen dabilen lekuko industria jadanik badagoela ohartarazten du ekologistak. Oihangintzari dagokionez, berdin, tokian tokiko ekonomia bat dago aspaldian, eta gisa horretako makroproiektu batek dena desorekatuko luke.

Laborantza biomasaren ekoizpena bideratzearen albo-kalteak azaltzeko tarte ere hartzen du Pachonek: batetik, elikadura energia-iturri gisa gastatzearen aurka dira ekologistak, eta bestetik,

nekazaritza industrialagoa eta intentsiboagoa garatzeko akuilu izan daitekeela uste du: diru baten truke, agroindustriak ondorioztatu ongarri kantitate handiez libratzeko bide interesgarria izan daiteke. Klima larrialdiak galdatzen digun elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren

14.000 hektarea oihan  
moztuko lituzkete lehen  
bost urteetan eta ondotik  
urtero 1.170 hektarea  
lirateke desagertuko

**Victor Pachon**

pario ausartei lotu beharrean, arazoaren hauspotzea ekarriko luke E-CHOk.

Erregai fosiletatik ateratzeko desafio klimatikoa aipatzen dute Elyse Energy taldeko buruek. "Bai, baina ez kostatzen ahala kostatzen", ihardesten diete ekologistek. Oinarrian, gauzak ez aldatzeko jarrera dagoela dio Pachonek: "Lehen bezala bizi nahi dugu, baina ez gara gehiago iraganeko egoera berean, gauzak aldatu

dira, eta geroan proiektatu behar gara. Urritasun izaera hartzeko garaia dugu". Gisa horretako megaproiektuek mahai-gaineratzen duten auzia da hori: desazkundetik pasa beharko gara, benetako trantsizio ekologikoa lortu nahi bada.

Ur kantitate alimaleak beharko dira makroproiektu horren aurrera eramateko: urtero 7,7 milioi metro kubo ur. Kezka adierazirik du Aturri-Garona Ur Agentziak berak, hain zuzen, horri gehitu behar zaizkielako Lacq industria guneak urtero erabiltzen dituen 14,3 milioi metro kuboak. Ez da ohikoa egitura horrek bere iritzia publikoki plazaratzearena, baina aldi honetan, ezin izan du isilik gelditu. Orain arteko ur hartzeak %65,47 emendatzeak aldaketak eta kalteak eraginen lituzke lekuko erreken ekosisteman. Fabriketatik berriz botako duten urari buruzko zalantzak ere ez dira ttipiak: kutsatuak izanen ote dira? Uraren temperatura egokia izanen ote da lekuko ekosistemarako?

Klima larrialdiari egokitzeko erabaki politikoen aurka doa E-CHO, jakinik idorteei aurre egiteko ur kontsumoaren murrizketa dutela helburutzat lekuko instituzioek. Aturriren arrotari dagokionez, urteroko ur kontsumoa 37 milioi metro kuboz ttipitu nahi dute 2030erako. Ezinbesteko pausoa, jakinik 2050erako 1.200 milioi metro kubo uren defizita aurreikusten dela arrotan.

## DIRU PUBLIKO BERDEAREN IHIZIA

Argi eta garbi, Frantziako Gobernuaren logikari segi doan makroproiektua da. Berotegi-efektuko gasen isurketak ttipitzeko asmoz adosturiko Karbono Apalari buruzko Estrategia Nazionalaren baitan agertzen da oihanen biomasaren ustiatetaren garapena: 2050erako %70 emendatzeak dituzte mozketak-. Alta, Ingurumen Ministerioak berak aitorturik du estrategia ez dela bideragarria, deskarbonizazioa bide horretatik lortzeko beharko lituzatekeen zuhaitz nahikorik ez delako. Hidrogenoaren industriaren garapena ere da Parisen helburu estrategikoen artean. Hidrogeno berdean "lider" bihurtzeko helburua finkatu zuen 2021ean Emmanuel Macron presidenteak, 7.000 milioi euro bideratuz plan estrategiko horri. Eta "hegazkingintza ultra-urriaren garapena" ere du xede. 2024tik 2030era, urtero 300 milioi euro bideratuko ditu "sektore berde" horri Frantziako Gobernuak.



Lacq industria gunean eraiki nahi duten elektrolisierako espazioak 30 hektarea lituzke. Gaur egun Txinan dago fabrika handiena eta horren espazioa bider bi luke E-CHOrenak.

Elyse Energy enpresako ordezkariaren fedea onean ez du sinesten Pachonek: "Finantzariak dira, diru erraza nahi dute eta ikusi dute hor badagoela sosa errazki egiteko aukera. Karbonorik gabeko energiari bideratu dirulaguntzak ihiztatzen dabilta". E-CHO egitasmoaren

"Lehen bezala bizi nahi dugu, baina gauzak aldatu dira eta geroan proiektatu behar gara: urritasun izaera hartzeko garaia da"

**Victor Pachon**

baitako eM-Lacq, Hylacq eta Biojet fabrikak 2027rako eraikitzeak dituzte. Bizkitartean, bilkura publiko bilkura publiko, gorderik eta isilean atxikita-plazaratzen dabil CADE elkarteak: "Abenduan abiatzeko dute egitasmoari buruzko inkesta publikoa. Bitartean, herritarrek informatzen ariko gara, behar orduan mobilizazioei lotzeko gisan". ●

## HIDROGENO NATURALA GURE LURPEETAN?

Apiril hastapen honetan hasi da Zuberoako eta Biarnoko lurpearen ikertzen TBH2 Aquitaine deitu enpresa. Jakin nahi du hidrogeno naturalik baden lurpe horietako geruzetan. Iragan uztailean pausatu zuen ikerketarako baimena eta Frantziako Gobernuak onartu berri dio. Hidrogenoaz gain, helioa eta bestelako substantzia batzuen presentzia ikertzen ariko da ondoko asteetan. Ikerketa sismikoak, geokimikoak eta beste hainbat neurketa zientifiko egitekoak ditu. Horrelakorik atzemanaz gero, zulaketarako baimena galdetu beharko dio gobernuari. Baietza ala ezetza jaso bitartean, herritarren, hautetsien eta lekuko eragileen kontsulta bideratu beharko du enpresak. 45-8 Energy enpresak ere baimen bera galdetua dio gobernuari. Bereziki Zuberoa trabeskatzen duen Uhaitza ibaiaren inguruak eta Baxenabarreko zein Biarnoko zenbait herri ditu begibistan.

Hidrogenoaren aldeko apustu argia egin du Frantziako Gobernuak. Hidrogenoaren Kontseilu Nazionala ere sortu du estrategia hori gidatzeko eta kontseilu horretan dira, besteak beste, Total eta Engie multinazionalen ordezkariak. Preseski, 45-8 eta TBH2 Aquitaine enpresek loturak dituzte nuklearraren eta erregai fosilen sektoreko bi enpresa erraldoi horiekin.

Naturalki lurpean dagoen hidrogeno hori "hidrogeno zuri" gisa sailkatu da. Koloreka banatua da hidrogenoa: zuria -naturan kaustitzen dena-; berdea -energia berriztagarrien bidez lorturikoa-; grisa -erregai fosilen bidez sorturikoa-; urdina -grisaren moduan lorturikoa, baina ondorioztaturiko CO2a lur azpian metaturik duena-; horia edo arrosa -energia nuklearraren esker produzitutakoa-; marroia edo beltza -ikatzaren bidez lorturikoa-.

Ekainekoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



# ZAHARTZAROAK



**MIRENE BEGIRISTAIN  
ZUBILLAGA**  
EKOFEMINISMOA EDO  
HERIOTZA



Virginia Bersabé (2011).

**Z**ahartzearekin aldaketa fisiologiko, emozional eta psikologikoak gertatzea unibertsetan bada ere, horiek lurreratzeko modu materialak, sozialak eta pertsonalak ez. Maiz zahartzaroa singularrean deklinatzen da baina elikadura, energia, ura, hezkuntza edo osasun zerbitzuetara bakoitzak duen eskuragarritasunak zahartzaroko baldintzak markatzen ditu; baita ere, landa eremuan edo herri-hirian bizitzeak, eredu heteropatriarkalaren hautuak eskaini dezakeen familiarizazio sare tradizionala izateak edo gorputzen dibertsitatearen errealtateak, besteak beste.

Gazte eta helduaroa etengabe mar txan dagoen garraio-zinta produktibistan kokatzen du eredu hegemonikoak, erritmo bizian eta arrakasta-molde zehatzekin. Garraio zintatik kanpo kokatu daitekeen zahartze demografikoari irtenbide inklusibo eta dotorea eman asmoz, zahartzaro aktiboaren aldarri distiratsua egiten da, zahartze autonomo, osasuntsu, sortzaile eta laguntzaile izaeraz jantzita. Baina zahardade homegeinizatzaileak garraio zintaren logika erreproduzitzen du; ideologia neoliberalarentzat pagotxa, *Silver economy* deritzenarekin edo zalantzan jarri

beharreko belaunaldi-arteke zaintza ez ordainduekin bapo elikatua.

Egungo krisi ekosozialean birkokatzen ari den kapitalismo berde eta digitalak erabakitzen du zahartzaroen merkaturik pasatzen diren bizi baldintzen norabidea, digitalizazioarekin zaintza-*washingari* eta *silver economy* horri gehiago erantzuten dioten gomendio eta esloganekin: zimurren eta muskuluen grabitatearen kontrako errezeptak, eremu naturaletara ezinbesteko bidaiak, erresidentzia pribatuen bizileku paradisuak (zure komunitatetik deslotuta), azken modeloko tramankuluen kontsumoa...

Baina zahartzaroak baditu beste mila aurpegi ere: euren eskubideen defentsan memoria ez-erromantizatua zein egungo beharrak aldarrikatzen dituzten Oneka-riak; zahartzaroen zer zaintza jaso/eman nahi dugun eta heriotza duinaren inguruan agenda feminista propioa eraikitzen ari diren herri eztabaidak; zahartzaroa bizitzeko etxebizitza proposamen komunitarioak; gorputz eta bizi-moldeen tabuak interpelatzeko ahots gero eta ugariagoak... Pentsioak, fardelak, beldurrak, sormena, bakardadea, bakarrik egoteko grina, aldakapurtua, aitona, alaba, berotasuna, ohe-

artikulatua, hotza, despistek, sexua, bastoia, aitzurra, minak, maitaleak...

Zahartzaroa egunerokoak taxutzen duen bide gisa hartzen badugu –gertuago edo urrunago haragituta sentitzen badugu ere–, zer enfokatzen laguntzen digu ekofeminismoak? Krisi ekosozialak zahartzaroen dituen eragin zehatzak azaleraztea: ze eragin du klima aldaketak, biodibertsitate galerak, ur eskasiak, lurraren kutsadurak, landa eremuaren husteak, migrazio bortxatuak, zaintza erregimenak... Azterketa eta datu hutsunea (interesatua) handia bada ere, jakina da elikadura osasuntsuaren ga-beziak, muturreko gertaera meteorologikoen, izurriteek, pobrezia energetikoak, bizitzaren garestitzeak, auzokide ezezagunek, osasunaren eta zaintzaren pribatizazioek... emakumeengan\* eta zaugarrienak diren pertsonengan eragin handiago dutela eta emergentziatzko egoeretan areagotzen direla.

Emakumeen bizi esperientzien politizazioak oso baliagarriak zaizkigu pribilegioak eta bortizkeriak zein desberdinkeriak ikusarazteko; baita ere, adineko barne piztiei ateratzeko askabideak irekitzeko eta nolako zahartzaro ekofeministak eraiki nahi ditugun agenzia mamitzeko. ●

## A ZE FAUNA!

## UDAN DATORREN BUZTINGILEA



**NEREA PAGALDAI AGIRIANO**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**H**ego luze eta zorrotzak eta v formako urkila-itxuradun buztana duen hegazti hau ikustean badakigu Euskal Herrira uda heltzear dagoela. Bizkarraldea eta buztana beltzak ditu, distira urdinxkekin, papar gorria eta azpialdea, aldiz, zurixka. Euskaldunon sinesmenetan presentzia handia izan duen hegaztia da enara. Baina batzuek ez dute jakingo bost enara espezie ditugula: enara arrunta, enara azpizuria, haitz enara, uhalde-enara eta enara ipurgorria. Baina, zein da zein?

Lehenik buztanari begiratu behar diogu. Buztaneko urkila txiki xamarra edo buztana bera motza baldin bada, enara azpizuria, haitz enara edo uhalde-enara izan daitezke. Ondoren, kolorean jarri behar dugu arreta: beltza baldin bada, ipurdi zuriarekin, orduan enara azpizuria izango da; izenak dioen bezala, azpialde guztia zuria du. Marroia baldin bada bi aukera ditugu: azpialde zuria eta lepoaldea marroia badu –lepoko marroi bat daramala dirudi–, uhalde enara da; aldiz, azpialde marroi argia eta buztanean orban zuriak baldin baditu, haitz enara izango da. Bestalde, buztaneko urkila handia eta sakona baldin badu, enara arrunta edo ipurgorria izan daiteke. Bi hauek bereiztea oso erraza da: izenak ongi dioen bezala, ipurdia gorria badu enara ipurgorria izango da; ipurdia bizkarralde osoa bezala beltza distira urdinxkekin baldin badu, aldiz, enara arrunta da.

Enara arrunta (*Hirundo rustica*) ondo ezagutzen dugu euskaldunok eraikinetan habiak egiteko duen ohituragatik. Bizkaia



aldean “txoririk preziatuena” dela diote, “zomorro ona” da hernaniarrentzat eta Nafarroa Behereko Arruetan “jainkoaren oiloa” deitzen diote. Hainbat izen hartu ditu hegazti honek gurean: ainara, elai, iñara, mitxigu, txenara eta beste hainbeste. Lehen herri barruetan gehiago ikusten ziren arren, gaur egun herri txiki eta baserri inguruetan aurkitzen dira gehienbat. Teilatu azpitan egiten dute habia sarri, lurrez egindako katilu itxurakoa. Buztingile itzelak direla esan dezakegu. Intsektujalea da hegazti hau eta hegan harrapatzen ditu, ahoa izugarri zabalduta. Inurri hegalariak, liztorrak eta kakalardo txikiak jaten ditu besteak beste, baina bere harrapakin nagusiak euliak eta eltxoak dira. “Enara dabilen tokin, eulirik ez”, diote

### ENARA

#### *Hirundo rustica*

**TALDEA:** Ornoduna/Hegaztia.

**NEURRIA:** Mokotik isatsera 17-21 cm. Hego luzera 32-34,5 cm.

**NON BIZI DA?** Landa zabalean, baserri inguruan.

**ZER JATEN DU?** Intsektuak, euliak eta eltxoak batez ere.

**BABES MAILA:** Europa mailan babestua.

batzuek. Eta arrazoi! Enarek egunean 800 intsektu inguru jaten dituztela ikusi izan da.

Hainbeste maite dugun hegazti honen kontserbazio egoera kezkatzekoa ez den arren, hainbat mehatxu pairatzen ditu. Alde batetik, nekazaritza intentsiboan erabiltzen diren plagiziden ondorioz, enara arruntaren dietaren parte diren intsektuen kopurua murriztu da eta gainera kimiko hauek hegazti honen ugaltzeko gaitasunean efektuak izan dezakete. Landa-ingurunea husterak, nekazaritza estentsiboa

gutxitzeak eta intentsiboa areagotzeak ez diote inolako mesederik egiten hegazti lirain bezain elegante honi. Bestetik, habiak etxeetan edo hauetatik gertu egiten ditu eta habien azpian gorotzak pilatu ohi dira. Alderdi hau ez da gizakion oso gustukoa izaten, baina pertsona eta administrazio batzuek hau dela edo eraikuntza-lanak direla, habiak nahita apurtu eta botatzen dituzte, eta enaren ugalketan ondorio negatiboak eragiten dituzte. Aipatu beharra dago, legez debekatua dagoela ekintza hau, arau-hauste larritzat hartzen da eta 5.001 eta 200.000 euro arteko isunak jarri daitezke. Gorotzek enbarazu eginez gero, badaude hainbat metodo eragozpen hauek murrizteko eta hegazti hauekin elkarbizitza errazteko. ●



# BERTAN BERTAN... ERLESEMEARI



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**M**aiatzak 4 zituen, larunbatarekin. Ez zen giro bereziki beroa, baina bai, hotzik ez behintzat. Halako batean burruna, burruna galanta, aspaldi entzun gabekoa. Hor azaltzen da etxeko atarian erle pila, milaka erle hegan, hegada sinkronizatu dotorean, dunbots batean. Erlesemea.

Gure etxetik bertan ez, baina urrutira gabe dute erlategia edo erle-establia Matteo eta Amaiur ilobek. Hango eultzeren batetik aterako zen erlesemea. Erlea edo erle-herria edo erle-mulkoa edo erle-taboa indarrean dago eultzean edo kofoinean edo erletxean edo erle-habian eta udaberriaren onenean erlama edo erlaita gazte berri baten hanketan eta hortzetan utzi hagintea eta ordura arteko erlama “zaharra” alde egiteko prestatzen da, milaka laguneko erle-tropa hartu eta beste toki bat kolonizatzeraz abiatzen da. “Erlama” eta “erlaita”, biak esaten zaizkio inguruko kulturetan “erregina” esaten diotenari. Hortik ote badoanari “erlesemea” esatea? Aita edo amatik, semea. Erlamari “erlegida” ere esaten zaio, egunen batean erle-herria gidatu beharko baitu, eta ondoren erlesemea.

Ahotsak.eus izugarrian, Urnietako Goiburu auzoko Legaralde baserriko Miel Arrieta Bideburuk ederki asko azaltzen du: baserrian maiorazgoa geratzen da eta gainontzeko ahizpa-anaiek norahara hanka egin behar dute. Ba erleak ere bai; baina erleetan ez da zaharrena geratzen, gaztea baizik eta zaharrak eultze-zuloko bidea hartu eta alde, milaka jarraitzaileekin batera.

Erlesemea esateko era asko dugu: erle-ume, erlekume, erle-tropa, erlebatza, erladi, erledi, erletze, erle-talde eta er-

le-pilo behinik bai. Bere burrundek lagun askoren maizta asko aztoratu dituzten adierazle, erleak gurean izan duen alimaleko garrantziaren seinale. Garai batean erleak etxekoak ziren, etxean bizi ziren, etxepean zen erlategia eta eultzeak ganbaran, hormetan eta abarretan izaten ziren. Erlea isurialde atlantiko ekonomian nahitaezko azienda zen, garrantzitsuena: bera gabe sagardorik ez; mendiaren ondotik nekazaritzaren mozkin kontuzkoena eta handiena. Ezaguna da: etxekoren bat hilez gero erleak jakinaren gainean jartzen dira -hiletarako- eta argizaria behar, izan ere-. Urdaia ere beharko da senideak berdintzeko, baina txerriarengana ez da horrelako kontuekin joaten. Erlearengana bai, eta soilik berarengana; “lutoa jantzi” esaten zitzaion.

Erle batek ematen duen erlesemea etxean ez geratzea galera handia da. Erlezaina edo erlezalea maiatzeko egun bero aproposetan azti dabil. Gurean iazko erleseme bat erle-txortan biltzen-biltzen eta sasiakazia batean geratu zen. Horrelakoetan erlezainak lastozko erlepotor konikoa edo zurezko erle-zorroa erabiltzen ditu, erlesemea bertara bildu eta eultze berri batean ezartzeko. Horrelakoetan ere erleari hitz egin behar zaio-



la dio aipatutako Miel Arrieta Bideburuk, biltzeko potorra edo zorroa hurbildu eta esan: “Bertan, bertan...”. Saldiasko Juan- ketengo Mariterexak, aldiz, dio legarra boteaz “behera Maria, behera Maria...”, esaten zitzaiola. Hitz bitan.

Aurten Matteok eta Amaiurrek ez dute lanik izan, etxepera etorri da erlesemea. Etxearen eguterako horma gainean, teilatu-erlaxean bada aspaldi erlategi basa izandako toki bat eta hauei ere horixe gustatu, eultze zuloa topatu dute, arakatu eta milaka erle barrura. Hau idazten ari naizen tokian, horma gainean, hemen dabilta aurrera eta atzera etengabeko joan-etorrian; musika eta ikuskizuna.

Inguruko landare lorekunak ere gus-tura izango dira, honezkero jabetu dira eultze berri bat osatzeko lan handitzarra hartu duen erle pila bat dabilela. Be-jondeigula! ●

## ARSUE ZERBITZUA

# ARDI SUHILTZAILEAK LIZARRAN



GARAZI ZABALETA



**L**ehen begi kolpean, ohiko artaldea dirudi argazkikoak, ezta? Bada, ez... ardi horiek suhiltzaile ere badira eta. Nafarroako Zunbeltz Nekazaritzako Test Guneak zerbitzu berria eta berritzailea jarri du martxan Lizarraldean: Arsue, edo artalde suhiltzaile estentsiboa. “Zunbeltzen barruan abiatutako proiektu txikia da hau, Nafarroan eta Euskal Herrian aitzindaria”, azaldu du Oihan Moreno Arriaran Zunbeltzeko teknikariak. 40 buruko artaldea dute, baina ez haragitarako, ezta esnekitarako ere: suteak saihesteko helburuarekin, mendiak garbitzeko zerbitzua eskaintzen dute ardi horiek. Abeltzaintzaren galerak ekarritako hutsunea betetzeko eta Nafarroan duela bi urte gertatutakoak bezalako suteak eragozteko abiatu dute zerbitzua.

## ZINTZARRI MODERNOAK ETA HESI BIRTUALAK

Nafarroako Kutxa eta La Caixa fundazioen Innovalocal egitasmoarekin elkarlanean abiatu du Zunbeltz guneak proiektu pilotua. “Ardientzako lepoko bereziak erosi ditugu, zintzarri moderno modukoak dira itxuraz, eta animaliei

hesi birtuala jartzeko balio dute”, azaldu du Morenok. Mugikorrek aplikazio baten bidez ardi bakoitzaren lepokoa kontrola dezakete, ardi bakoitza momentuan non dagoen ikusteko eta mugak jartzeko. “Animalia mugikorretik ezarritako hesi birtualera hurbiltzean, soinu bat egiten du lepokoak, abisu moduan. Pixkanaka, soinu horrekin atzera egin behar dutela ikasten dute”, azaldu du teknikariak. Aurrera segituz gero, hesi elektrikoaren antzeko deskarga txiki bat ematen die lepokoak.

Morenok azaldu duenez, Norvegian eta beste herrialde batzuetan garatutako daude horrelakoak baina gurean aitzindaria da Arsue proiektua. “Hesi birtual horiekin mendi guztia hesiz ixtea saihesten dugu, kostu handiak ditu horrek”, dio. Ardi guztiak monitorizatzearekin, gainera, artaldea nondik eta zertan ari den jakitea errazago zaie, baita garbitu nahi duten zonalde guztietatik pasatu direla bermatzea ere. Zerbitzu berria entitate publikoei nahiz pribatuei eskaintzen diote. Momentuz, Lizarrako Udalarekin lortu dute lehen adostasuna: Santa Barbara inguruan eginen ditu bi hilabete artalde suhiltzaileak.


## ABELTZAINZA ESTENTSIBOA, SUTEAK SAIHESTEKO GAKO

“Duela bi urte Nafarroako zonalde honetan gertatu ziren sute handiekin, inguruko udalak suteen aurkako planak diseinatzen hasi ziren. Arrisku handiko udalak horretara behartuak daude, gainera”, azaldu du Morenok. Herri askotan artzainik ez da gelditzen gaur egun, edo oso gutxi daude, eta hutsune hori betetzeko sortu dute egitasmoa. “Beste abere batzuk ere bazeuden gure aukeren artean, baina, azkenean, ardiak hartzea erabaki genuen, abere ‘arinenak’ edo errazenak direlakoan”. Beste herri batzuetan, Legardan, esaterako, Erreniega mendi inguruan, Galloway arrazako behiak bota dituzte mendia garbitzeko.

“Azkenean, esaten da, mendian bi xentimo inbertituta, suteetan euro bat aurrezten dela. Garbitzen duzun hori guztia aurrezte da, beraz, garrantzitsua da honetan inbertitzea: gure mendietan abereak egotea lortu behar dugu, garbi mantentzeko, eta ekosistemaren parte izateko”, amaitu du gazteak. ●



# Mister Spanishen ehorzketa



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**M**arfa (AEB), 1954. Texasko basamortuko herri horretako Blackwell lehen hezkuntzako eskolan haurrak zeremonia berezi batean parte hartzera behartu zituzten. Irakasleek paper zatiak banatu zizkieten eta bertan zera idazteko eskatu: "Ez dut espainieraz hitz egingo, ez eskolan, ezta atsedendian ere". Paper zati guztiak kutxa batean sartu zituzten. Ondoren, ikasle guztiak prozesioan patiora irten ziren eta kutxa AEBetako banderaren ondoan egindako zulo batean sartu zuten. "The burial of Mister Spanish" deitu zioten ekintzari.

1954an bertan, AEBetako Auzitegi Gorenak irizpena eman zuen eskola publikoetan segregazioa ezartzen zuten legeak konstituzioaren kontrakoak zirela. Baina erabaki hura praktikara eramateko 11 urte behar izan ziren; 1965ean eskola berri bat eraiki zuten Marfan, eta Blackwell eskola segregatuko haurrak, mexikar jatorrikoak, herriko gainerako haurrekin batera ikasten hasi ziren bertan.

Eskolan afroamerikarrek jasaten zuten diskriminazioa legez aginduta zegoen arren, mexikar jatorriko ikasleekin ez zen gauza bera gertatzen; eskola barrutiek erabakitzen zuten haur latinoekin zer egin. Eta mugaz gertuko estatuetan, Kalifornian, Arizonan, New Mexikon edo Texasen, gehienek segregazioaren aldeko hautua egin zuten. "Mexikarren eskolak" zabaldu zituzten 1940ko hamarkadan; Texas estatuan soilik 120 herri eta hiritan ireki zituzten horrelakoak.



BLACKWELL SCHOOL ALLIANCE

Marfako (Texas, AEB) Blackwell mexikarrentzako eskola segregatuko jolastokia. 1954an patio horretan "mister spanish" ehortzi zuten sinbolikoki, haurrek gaztelaniaz hitz egin ez zezaten.

Gaztelaniaz hitz egiten tematzen zirenak zigortzen zituzten, baina gehienetan ez zen halakorik gertatzen, "asimilazioa" sotilagoa eta sakonagoa izaten baitzen. Jattetxeetan "Txakurrak eta mexikarrak debekatuta" zioten kartelak ohikoak ziren garaian, eskoletan txurien eta klase ertainaren baloreak sartu zizkieten, mexikar jatorriko haurrek omen zeukaten "ezgaitasun linguistikoa" zuzentzeko aitzakiaz.

Garai hartan Texasko eskola segregatu batean ikasi zuen Janie Martinezek bere esperientzia kontatu die berriki Texas-San Antonio unibertsitateko ikerlariei: "Ez nuen espainieraz hitz egin nahi, ez nuen mexikarrek bezala jantzi nahi". Eskolan graduatu zenean diplomana "Janie" idazteko

eskatu zuen, "Juanita"-ren ordez. Gerora, seme-alabei ez zien gaztelania irakatsi eta gaur egun horrekin damututa dago.

Mexikar jatorriko beste guraso batzuek ez zuten damurik izan. Mexikoko mugatik hurbil "escuelita" delakoak sortu zituzten beren poltsiko mehetik nola edo hala finantzatuta. Formakuntza eta esperientzia zeukaten irakasleak Mexikotik ekartzen zituzten, haurrek kalitateko hezkuntza espainieraz ere jaso zezaten.

Baina hori ez zen nahikoa izan segregazioaren eta asimilazioaren ondorioak leuntzeko. Mexikarren eskoletan ikasitakoen belaunaldian %75 inguruk daki edo zekien espainieraz eta hiru belaunaldi geroago, haien oinordekoen %20k besterrik ez. ●



TEAM NINJA

## XIX. mendeko Japonia bideojokoan

**D**uela aste batzuk Sony etxeak *Rise of the Rōnin* bideojokoa kaleratu du, eta adituek jokoaren kokapen historikoa nabarmendu dute orduz geroztik. Jokoa XIX. mende erdialdeko Japonian kokatuta dago, Yokohama, Edo eta Kyoto inguruetan.

Edo aroaren azken urteak izan ziren haiiek, Bakumatsu esaten zuten urte odol-

tsuetan. Azken shogunak kontzesioak egin zituen europarrei Japonia hermetikoan sartzen uzteko. Azken samurietako askok shogunaren aurka egin zuten eta atzerritarak egozteko borrokatu ziren.

Jokoaren sortzaileek "aldaketa dinamiko handiko" garaia aukeratu dute, "jokalariei aukera eta askatasun sentsazioa eskaintzeko". ●

## KOLABORATZAILEAK



KOLDO ALDALURREK UTZIAK



Koldo Aldalurrek ETBtik erretiroa hartu du eta ARGIA n iritzi artikuluak idazteari utzi dio. Orain jubilatuz bizitza egiten du, besteak beste, bidaiak eta baratzea.

## Paper zuriaren aurrean kikildu ez den kazetaria

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**E**uskal Herri txiki honetan, euskal komunitate are txikiagoaren barruan, ez da zaila bistaz behintzat ezagutzera. Eta agian gazteagoei pista galtzea errazagoa da, baina zaharragoak "fitxatuta" eduki ohi ditugu. Astekariko atal hau osatzen ari naizenetik behin baino gehiagotan pasa izan zait nire haurtzaro edo gaztaro-ko erreferentzietan galderak egin behar izatea eta oraingoan telebistatik aurreko oso ezaguna zaidan Koldo Aldalurrekin (Zumarraga, 1959) hitz egitea egokitu zait, hogeita bost urteren ondoren ARGIA n idatzi duen azken iritzi artikulua entregatu berrian.

ETBko kirol kazetari moduan ezagutzen dut nik (34 urte egin ditu bertan), baina ARGIA n ere ez du ibilbide makala egin, mende laurdena baita iritziak idazten hasi zela. Kirolari buruzkoak izan ziren lehen hamabost urteetako testuak, baina azken urteetan gai sozialak landu ditu. "Kirolaren inguruan

aritu naiz, baina beti ikuspegi ezberdina eman nahian, ezkutuan dauden kontuak eta agintariei aipatzea komeni ez zaizkienak aireratuz, alegia", esan digu. Aitortu digu paper zuriak beti eman izan diola zuzenekoek baino bertigo handiagoa: "Momentuko hitzak haizeak eramaten ditu, paperean idatzitakoa hor geratzen da, salatari".

### ATZERA BEGIRA

Erretiroa hartuta, atzera begirako balorazioa egin du, egitura bertikalak eta askatasuna azpimarratuta: "Egitura bertikalean aritzea eroso da soldata soilik baduzu helburu. Beste batzuk hartutako erabakiak bete eta epel bizi. Konformidadean bizitzea ez baduzu gustuko, arazoak sortzen dira, baina kazetari bizitza aberatsagoa da. Diote oreka topatzean dagoela gako; dena den, atzera begira jarrita, egindako ibilbidea aberatsa izan dela iruditzen zait eta egindako lagunak lankideak

## Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

“Inoiz baino beharrezkoagoa da kazetaritza independente eta kritikoa bultzatzea”.

Bilbotik Igorrek

“Fidagarritzat jotzen dudana informazioa jasotzeko, euskaraz”.

Bilbotik Jonak

“Kazetaritza independentea sustatzeko”.

Madrilatik Asierrek

baino askoz gehiago direla”. ARGIAk “nahi dudana esateko askatasuna” eman diola azpimarratu du “eta, jakina, nire hizkuntzan aritzeko aukera. Iruditzen zait kazetaritza alderdiei eta agintariei hain lotua dagoen garai ilun honetan, ARGIA guztiz beharrezkoa dela”, azpimarratu du.

### ETA HEMENDIK AURRERA?

Mundua astintzen duten albisteak jarraitzen dituela aitortu digu, baina gertuen duena garrantzi handikoa dela ahaztu gabe. “Baratzean tipulak, lekak eta letxugak hazten ari dira, eta orain tomateak landatzeko garaia da. Kataluniako hauteskundeak garrantzitsuak dira. Gure baratzea ere bai”, esaldi ederrarekin amaitu dugu elkarrizketa. ●



BEHE BANDA SORTU DA

# Literaturan behetik hasteko leku bat

Idazle gazte batek ba al du espaziorik trebatzeko eta gaitasunik garatzeko? Ba ote dute idazkiek zirkulatzeko aukerarik, lokaztuta ito ez daitezen? Bakarrik egin behar al du bidea idazleak, halaberrez? Nolako zirkuitu literarioak nahi ditugu? Galdera horien itzalean sortu dute bost idazle gaztek Behe Banda: Irati Oskoz Egiguren (Astigarraga, 2005), Maddi Agirre Epelde (Gasteiz,

2005), Irati Larrañaga Etxebarria (Bilbo, 2004), Harri Diaz de Heredia Matanzas (Gasteiz, 2004) eta Irati Fernandez De Okariz Irureta (Gasteiz, 2004). 2023ko abenduan argitaratu zuten bere lehenbiziko autoekoizpena, *1. Behe* izeneko fanzinea. Baina idatzi bakarrik ez, hausnartu ere egin nahi dute elkarrekin, literaturak har ditzakeen forma eta norabideez.

 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA  BEHE BANDA

**U**rruzuno literatura sariketako irabazleen egonaldian ezagutu zuten elkar, Arantzan (Gipuzkoa). Berezia izan zen egonaldia, sortu zuten laguntasun harremana bezalaxe. Egonaldia bukatu ostean, ordea, etsipena sentitu zuten: idazten, argitaratzen eta ikasten jarraitu nahi baina ezin asmatu nola. Modurik ezin aurkitu. Ez da kasu anekdotikoa, literatura maite duten gazte askok galtzen dute idaztearekin lotura egoera horretan. “Urruzuno saria irabazi duen gazteak idazten jarraitzea espero da, baina aurkeztu daitekeen lehiaketaren eskakizunak ezin ditu bete. Zer egin dezake idazle gazte batek? Bestelako aukeren faltatik sortu dugu Behe Banda, hain zuzen”, ohartarazi du Agirrek. Urruzunoko edozein ediziotan gertatzen dela gehitu dio Oskozek, bukatu ostean gazteak galduta

sentitzen direla: “Idaztea gustuko duzu, baina ez diozu aterabiderik ikusten”.

Egonaldiko “konexioa” galtzen utzi eta inertzian erori nahi ez, ordea, eta Eibarren elkartu ziren bost gazteak abenduan. Denek sentitzen zuten “zerbait egin beharra”, eta elkarri “aitortu” zioten egun hartan. Ados zeuden, halaber, zentzugabea zela ibilbide literario indibidualari ekiten saiatzea. Ez zuten horretan jarduteko baldintzarik, eta ez zen hori jarraitu nahi zuten eredu. Bigarren hitzordua finkatu zuten Agurainen, eta bertan sortu zen bandaren ideia. Fernandez de Okarizek gogoan du eskariak apuntatzeko tabernaren koadernoan izkiriatu zituztela taldearen mandamentuak, ez baitzuten “koaderno ziztrin bat ere” aldean. Aise darabilte post-ironia, eta umoretik kontaktzen dituzte haien ibilbideko une garrantzitsuenak ere.

## IDAZLE TALDEA

Nola eratzen da literatur banda bat? Ingurura begiratuta, ez dira asko literatura sorkuntza prozesu kolektibo bezala pentsatzeko erreferentziak, baina, jakina, euskal letretan egon da esperientziarik lehenago: Pott eta ITU bandak, batik bat. Literatura banden tradizioa dagoela, beharbada, gehiegi esatea litzatekeela uste du Oskozek, baina horien eredu jarraitu nahi dutela dio edonola ere. “Egin ditugu bromak ere horrekin: Porrott banda izena, Pott banda imitatuz. ITU bandako batzuk ere ezagutzen ditugu. Hamar urte pasa dira ordutik. Iruditzen zitzaigun zerbait egin nahi bagenuen ez zeukala zentzurik lehenago egin dena aintzat ez hartzeak. Eta literatura banden espresioa eman da beste komunitate literario batzuetan ere. Jarraipena eman nahi genion”.



Idazle lanetan joera indibidualista hagitx hedatua dagoela uste du Agirrek, ziurrenik lehiak eta sariketek pisu handia dutelako. Gizarte osoa eta bizitzaren aspektu ia guztietan dela horrelakoa nabarmendu du, bidenabar: “Idazlearengan pentsatzen dugunean, nola irudikatzen dugu? Bere etxean sartuta bakarrik dagoen pertsona, egun guztian idazten. Irudi hori gailendu da”. Mito horrek literaturatik aldendu duela uste du Harri Díaz de Herediak; talde lanak, aldiz, idaztera bultzatu du. Beste adierazpide artistiko batzuetan normalizat dugu taldean jardutea. Musika da adibide nabarmenena, ziurrenik. Idazle-kolektibo bat musika banda bat bezalakoa dela dio Wu Ming taldeak, baina denek instrumentu bera jotzen dutela.

## LITERATURAK KOMUNITATEA BEHAR DU

Ez dute idaztea ulertu nahi norbere buruarekin egiten den ariketa gisa. Pentsatzen dugunaren kontra, bakarka idazten denean ere idaztea ez baita ariketa indibiduala, Oskozen irudiko. Komunitatea behar du idazkuntzak

eta zirkulatu egin behar dute idazkiek. “Gertatzen da testuak lokaztu egiten direla, ez dutela arnasa hartzen ez badago irakurriko dituen inor. Zeuk idatzi duzun testu bat irakurtzea, irakurtzea da ala errebisatzea?”. Izan ere, azken batean, literatura komunikazio ekintza da, edo hori ere bada, eta soziala, beraz.

Zentzu horretan, isolatuak sentitzen direla gaineratu du Oskozen: “Ezagutzen ditugu idazle gazteak, badakigu zer idatzi duten, irakurri dugu haien lana, baina ez dago hartu-emanik. Ez dugu ohiturarik elkarri idazteko, adibidez, idatzi duenari buruzko iritzia emateko, zoriontzeko. Guk badakigu zeinen garrantzitsua den hori”.

1. *Behea* fanzineak izan duen harrerari buruz galdetuta, barre algarka erantzun dute bostek. *Feedback*-a, kritikak jaso nahi dituztela diote, baina espero zutena baino txikiagoa izan dela orain arte jaso duten erantzuna. Garrantzitsutzat dute literaturaren bueltan dihardutenen arteko hartu-emanen indartzea ere. Ahal dela, autore eta irakurlearen arteko bereizketa lausotu dadila bilatzen dute.

Horregatik, hein batean, argitaratu dituzten testuak kontakizun laburrak dira: poemak prosan, oro har. Solte irakurri daitezke, edo irakurleak nahi duen ordenan. Formatu dinamikoa da, irisgarriagoa, eta hartu-emanen bultzatzen du, Díaz de Herediaren iritziz. “Ematen du liburu bat hasi eta bukatu egin behar dela, modu oso konkretu horretan irakurri behar dela eta bestela ez zarela behar bezala egiten ari; hori ere arindu egin nahi izan dugu, handinahikeriak uxatuta”, erantsi du Oskozen.

Literatura komertzial edo konbentzionalen gailentzen den generoa nobelarena dela uste du Larrañagak. Idazlea eta irakurlea elkarrengandik bananduak, isolatuak behar al ditu eleberriak, ahoko literaturak edo narrazioek ez bezala? Ezin auzi hori hemen ebatzi, baina beste formatu batzuen aldeko apustua egin dutela agerikoa da. Bestalde, “berehalakotasunaren kultura” gero eta hedatuago dagoela uste du Díaz de Herediak, eta joera horiek ere izan dezaketela eraginik harturiko erabakietan, testu laburrak idaztea kasu.





## IKASTEKO ETA HAUSNARTZEKO ESKOLA

Bilbon egin zuten hirugarren bilera. Orduan erabaki zuten banda bezala *1. Behea* idatziko zutela, taldekideek idatzitako testuak batzen dituen fanzinea. Batera idatzitako manifestua edo editoriala da aleko lehen testua. Bertan azaltzen dute bandari izena ematen dion ideia: Behe-mailako testuek osatuko duten joan-etorri bakoitza, oinarria sortuz lortzen den bolumenaren ertza, irakurle inozo batek potentzialitaterik antzemango duen as-


moz. Satira ala umiltasuna? Agirreren ustez, “agerikoa da euskal literaturan guk atera dugun hau behean dagoela, idazten jarri diren gazte batzuk gara. Baina hori aitortu nahi dugu, barre egin ere bai, eta testu horiek balioa dutela aldarrikatu”.

Banda eskola dela uste du Diaz de Herediak, ikasteko egin dutela. Idazle hasiberrien testuak direla nabarmendu du Agirrek. Zentzu horretan, Oskoz jakitun da zaila egiten zaiola oraindik lengoia artistikoa kontrolatzea, estilo batera nahita jotzea, “trebetasun maila-

gatik edo”. Idazketak bera kontrolatzen du, alderantziz baino gehiago. Horregatik, uste du bandak lagundu diola “joera horietan ez erortzen, beti berdinez eta modu berean ez idazten”. Horixe da hain zuzen ere taldea osatzearen helburuetako bat. “Elkarrekin idatzi, ikasi eta erratu” nahi dute, Larrañagaren hitzetan.

Idazte prozesuak esperimentazio-tik asko izan duela nabarmendu dute. Elkarri jarritako ariketak dira pieza gehienak. Adibidez, lehenengoa. “Behetik ikusten ditut nire eskuak”, nork bere

Lehen aldizkariaren manifestua. *Behebanda.eus*-en irakurgai.



"Hamar urte pasatu dira  
ITU sortu zutenetik; zerbait  
egitekotan, aintzat hartu  
nahi genuen lehenago egin  
izan dena"

## Irati Oskoz Egiguren

ikuspuntutik jorrazteko. "Diskonfort zona, zer ez duzu idazten normalean?", hurrengo, hortik tiraka deseroso sentitzen diren tokietatik idazteko. Poema erotiko bat ere badago alean. "Ariketek josi egiten dute bandaren talde izaera, baina idazkiak banaka oso ezberdinak dira. Bandak ematen die batasuna", Diaz de Herediaren ustez.

### NI-A, GU-A ETA MUNDUA

Barne-gatazkek, kezka artistiko, politiko eta existentzialek inpregnatuta daude lehenbiziko aleko testuak, bizipen pertsonal eta, kasu askotan, arras intimoetatik kontatuak, *ni*-ari uko egin gabe. Artea espresiorako modu bat da Larrañagarentzako, eta barruak husteko ere balio dezakeela dio: "*Ni*-tik eman dezakegu munduari buruzko iritzia. Hitz egin dezakegu arteaz eta iraultzaz eta, aldi berean, bizipen pertsonalez".

Alean idatzi duena bere esperientziak direla dio Agirrek, "argi eta garbi". Bere bizitzan gertatu dena "analizatu eta zabalagoa den zerbaitekin lotzen" saiatzen da, "zentzua ematen norberak bizitakoari". Zalantza egiten du, ez ote duten auzi edo "gauza handiez" modu esplizituan idaztea ekiditen maiz, "hain zuzen ere, guretzako handiegiak diren beldurrez, eta horregatik idazten ote dugun esperientzia pertsonalen atzean gordeta". "Horregatik jo dut agian *ni*-az hitz egitera, benetan eta sakontasunean ulertzen dudana gauza bakarra delako", hausnartu du Diaz de Herediak.

### NONDIK ETA ZERTARAKO IDATZI

Elkarrekin idatzi bakarrik ez, hausnartu ere egin nahi dutela adierazi dute aho batez. Oskozen arabera, bildu badira da "iruditzen zaigulako hutsunea dagoela, gutxienez, guk eragin dezakegun literatura munduan". Bandak aukera ematen du norbere burua kokatzeko eta zer



posiziotan dagoen ulertzeko. "Taldea jardutean badakit zer eta norentzako idazten dudana. Kideekin hitz egiten dut idazten dudana, idazteaz, irakurtzeaz, literaturaz. Horrek asebetetzen nau", dio Diaz de Herediak.

"Literaturak nora eraman gaitzaken, nora joan nahi dugun", hausnartu nahi dute. Hor ikusten du Oskozek potentzialitate handiena, "batera idatzi bakarrik ez, elkarrekin hausnartzean baizik". Adibidez, zer lan literarioari ematen zaion ikusgarritasuna eta zeini ez. "Zirkuitu literarioak berak erraz egiten ditu bereak proposamen batzuk, eta beste batzuk aldiz airean uzten ditu. Ez ditu esplizituki ukatzen baina kontzienteki jartzen du fokua leku jakin batzuetan", uste du. "Eta zirkuitu literarioaz ari garenean idazleez, argitaletxez, kazetariez... ari gara", zehaztu du Fernandez de Okarizek.

### ARGITARATZEAREN DRAMA ETA ABENTURA

Idatzitakoa maketatuta eta inprimatuta izanik dagoeneko, ezagutzera nola eman, nola plazaratu? Irudimenez egin diote erronkari aurre, bidea ez baitzegoen emana. Bertsolaria da Agirre, eta argi du literaturan ez duela aurkitu bertso mundukoaren pareko komunitate sendorik. Bertsolaritzan ez bezala, oso bakartia egin zaio Behe Bandarekin idatzitakoa plazaratzeko bidea.

Besteak beste, ezagutzera emateko, Durangoko Azokara eraman zuten alea. Urruzunoko begiraleez, Mikel Ayllon eta Itxaro Borda idazleez oroitu dira, animatu egin zituztelako. "Bandalismo ekin-tza izan zen gure partetik", aitortu du Agirrek, barrez. Pegatinak eta kartelak

jarri zituzten testuetatik ateratako esaldi solteekin. Postuz postu ere ibili ziren, aleak banatzen, Behe Bandaren orri-markatzaileak liburuetan sartzen. Eta batek baino gehiagok erantzun: "A! Zuek zarete! Twitterren ikusi zaituztet", oroitu Larrañagak. "Eldarnio hutsak diren *post*-ak baino ez ditugu igo eta! Espresio toki paregabea da sare sozial hori", egin du barre Oskozek. Izan ere, hainbat sare sozialetan dago Behe Banda, eta web orria ere badute: [behebanda.eus](http://behebanda.eus).

### AURRERA BEGIRA

Anekdotak artean iritsi gara elkarrizketaren bukaerara. Ezin denak hemen jaso. Hemendik aurrerako biderei buruz mintzatu da Fernandez de Okariz. Gauza berriak prestatzen ari dira. Beste fase bati ekin nahi diote: "Ez dugu lehenengo fasearen jarraipen antzu bat egin nahi". Grabagailua itzali aurretik, esaldi hau airean utzi nahi izan du Diaz de Herediak: "Zerbait egin omen genuen eta...". ●







# Hitz gezidunak

Gaia: \*Euskal Eskola Publikoaren Jaia 2024

ZELAIA, TOKI LAUA ----- GAIXO, ERRUKARRI	LAGUNARTEKO HIZKERAN, BARRABIL ----- JORRATZEN	JOAN DEN GAUEAN	LETRA IZENA (PLURALEAN) ----- INFUSIO BIZIGARRIA	EDO ----- BAT ERROMATAR ERARA	MOTORRIK GABEKO IBILGAILU ----- * HERRIA	OILAGORRA ----- NAFARROAKO HARANA	
INDARRA, ESKUA ----- SARRI GERTATZEN DENA	MODU ATZIZKIA ----- ZOZOAREN FAMILIAKO TXORIA	PRESO HARTZE ----- OMEN		GARIAK ----- OXIGENOA	DAUDE ----- PARE BAT	ADITZA (LABURDURA) ----- BUZTANIKARA	
OLERKI LIRIKOA		ODOLOSTE				ARABAKO HERRIA ----- ... EDO ZART, DUDA EGIN GABE	
NAFARROAKO MENDIA ----- ZAKUR							ETZAN
	BOSTEHUN ERROMATAR ERARA ----- SAKAN, HARAN					OSTE, GIBEL ----- GIPUZKOAKO UDALERRIA	
DU, BERARI ----- * LELOA		GOROTZA ----- JOAN DEN URTEA				DA, NIRI ----- OSATU ADITZAREN ERROA	BOKAL BIRIBILA ----- ARRANTZA TRESNA
BERNIZ DISTIRATSU ----- SARITU		SIMAUUR ASKO EMATEN DUENA ----- TONA			ALFABETOKO AZKENA ----- LETRA IZENA		
				NUEN, HAIEI			

## Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	9		3					
3	5	8	4		1			2
	1	6			7	8		
		7			2	9		
		9	8	3				
1		4		7	5			3
	7				8	1	4	
			7		3		6	
	6	1	2	4				7

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Mingots, min.
- Gari sorta.
- Lurraren barneko geruza.
- Letra grekoak.
- Nau.


## EBAZPENAK

8	6	1	2	4	9	3	5	7
8	4	5	7	1	3	2	6	8
2	7	3	6	5	8	1	4	9
1	8	4	9	7	2	5	6	3
6	2	9	8	3	4	5	7	1
5	3	7	1	6	2	9	8	4
4	1	6	5	2	7	8	9	3
3	5	8	4	9	1	7	2	6
7	2	3	8	6	4	1	5	9

N	E	I	N	U	L	V	L	Z	I	R	V	S
I	R	U	V	S	I	V	K	V	L	V	K	S
Z	O	D	A	V	A	K	O	I	K	B	L	P
T	X	A	Z	K	O	I	O	D	I	D	X	T
E	Z	V										R
T	R	Z										N
V	I	B										O
V	A	D										R
V	A	R										S
K	A	R										R
E	Z	E										O
E	Z	E										O
P	V	A										N



# Subkontzientera bidaia

 UXUE GUTIERREZ LORENZO

**U**lertzen ez ditugun fenomenoen multzoan sailka daitezke ametsak. Ulertzen ez ditugun arren, hain dira biziak, hain sarkorrek, hain errealak. Eta, nola irudika ditzakegu ametsak? Biharamunean askotan ez ditugu loaldiko bizipenak gogoratzen, eta asaldatuta esnatzen garenean ere kolpean desagertzen dira segundo batzuk lehenago gure subkontzientera egindako bidaiak.

Ametsen mundu liluragarri eta bel-durgarrian murgildu gaitu Organik dantza konpainiak. *Ondoloin* ikuskizuna estreinatzeko plaza esanguratsua aukeratu dute: Leioako Umore Azoka. 24. aldia izan du jaialdia aurtengoa, eta orotara mundu osoko 41 konpainiaren 80 bat emanaldi bildu ditu programak. Dantza, zirkua, antzerkia... arte eszenikoak nonahi Leioako kaleetan; eta, tartean, Organik konpainiaren

*Ondoloin*. Natalia Mongek zuzendu du emanaldia, eta Ainara Bento eta Iñigo Rementeria dantzariak gorpuztu dute dantzaldia.

Bustita dago udaletxeko plaza, eta hormigoizko eskaileretan pilatu dira 50 bat ikusle. Plazaren erdian zutik emanaldiaren bi protagonistak. Bozgorailuetan musika, eta eszenografia osatzen elementu bakarra: bi burko zuri. Musikaren erritmoan abiatu da ametsen mundura bidaia.

Harmoniatsuak dira lehen mugimenduak, leunak eta pausatua. Hala izango dira protagonisten ametsak. Bata besteari jarraitzen diote dantzariak, eta topatzen diren aldiro lotzen dira bien gorputzak. Lozorro lasaia.

Lo kuluxka lasaia ez ezik, loaldi jostagarria ere irudikatu dute. Sinkronia paregabean, amets dibertigarri batean murgildu gaituzte. Lozorro atsegina

---

## ONDOLOIN

**NOIZ:** Maiatzaren 17an

**NON:** Leioako Umore Azokan

---

hau ere. Begiak itxita eta burua burkoan pausatuta, poztasuna transmititzen dute dantzariak.

Kolpean moztu da loaldi goxoa. Badator mehatxua, badator amesgaiztoa. Musikaren kolpe sarkorrek gidatuta, infernura norabidetu gaitu emanaldiak. Dantzarrietako batek motots ilegorria askatu du, eta bere irudia erabat eraldatu. Burko guda irudikatu dute. Elkarrekin ari ziren dantzariak, elkarren aurka dabilta orain. Aldatu zaie gorpuzkera, ibilera, keinuen gordintasuna eta baita aurpegiaren espresioa ere. Amesgaiztoen dantzak hartu du oholtza.


Eta, nora garamatza amesgaiztoak? Hortik atera nahi izatera. Amesgaiztotik esnatu nahi dugu, ihes egin. Hitz bakarra ahoskatu du dantzarrietako batek: 'Aita'. Horrela hasi eta horrela bukatu da emanaldia. Amets goxoetan, aita; eta, amets ilunetan, aita. ●





LIBURUA

# 'Salbatzaileen tenplua' eraisteko ordua



## FEMINISMO ZURIAREN AURKA

RAFIA ZAKARIA

ITZULT: AMAIA APALAUZA OLLO

ELKAR ETA JAKIN, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA


**F**eminista eta anti-arrazistatza duzue zure burua? Bururatu zaizu inoiz ezagutzen duzun feminismoaren historia zuria eta kolonialista dela? Kultura ez-zuriei buruz duzun ezagutza edo begirada zalantzan ipini dituzu? Ahal duntze feministaren inguruko irakurketa kritikorik egin duzu? Feminismo iragazkorra, sekurofeminismoa edo hautu-feminismoa zer diren jakin nahi duzu? Hari horiei tira egiteko, irakur ezazu liburu hau.

230 orrialdetan eta zortzi kapitulu-tan Rafia Zakaria abokatu, kazetari eta idazle pakistandar-estatubatuarrak feminismoaren supremazismo zuriaren aurka jarduteko gonbidapena egin digu. Horretarako, bizi dugun feminismoari kritika egin eta eztabaidarako proposamena luzatzen du. Zertarako? "Egiazko

elkartasun feminista bat eraikitzeko" eta feminista guztiak elkarrekin "politika feminista zabal, sendo eta eraldatzaile bat sortzeko". Liburuan zehar bere esperientziatik eta bere ezagutzatik hartutako adibide konkrituak azaldu eta hortik gogoeta partekatuko du irakurleokin.

2017ko Jakinen *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean* eta 2022ko EHBfren *Araka ditzagun gure bazterrak* dira euskal feministen artean zurtasuna eta haren pribilegio eta botere-posizioa aintzat hartzen hasteko argitaratu diren lehen urratsak. Greba feministak antolatzean egondako gorabeherak ere aurrekarizat har genitzake afera honetan. Liburu honek lagundu ahal digu bidea egiten jarraitzen, nahiz eta atsegina ez izan edo irakurri ahala erresistentziak agertu.

Sayak Valencia mexikar filosofoaren 2021eko definizio bat ekarri nahiko genuke amaitzeko, Zakariaren liburuarekin batera begirada zurizentrikoa birkokatzen (edo deskolokatzen) lagundu ahal digulakoan: "Transfeminismoa ez da transgenero diskurtsoa feminismoa ekartzea edo feminismoak gainditzeko asmoa, baizik eta transito egoerak, migrazioak, mestizajea, zaugarritasuna, arraza, klasea eta generoa hartu eta matxinoen mugimendu sozialen memoria historikoarekin gurutzatzen dituen sare bat, egungo praktika eta subjektu guztiei diskurtsorako eremuak zabaltzeko, gutxiengo bilakatzen diren horientzat, feminismo hetero-zuri-biologizista-instituzionalak zuzenean aintzat hartzen ez dituenentzat". ●



MUSIKA

# Berezitasunarekin hazten gara



Diskoan parte hartu duen taldeetako bat da Hamarratz.

IKER BARANDIARAN

Oñati herri berezia da zentzu askotan, eta zer esanik ez, inguruko herrietakoen begiradapean, a ze betaurreko janzten ditugun! Ezaugarri asko dituzte herriak eta herritarrek berezkoak, eta gazte asanbladaren inguruko mugimendua ere halakoa da, iraganean zein Antixena Gaztetzearen inguruan ere. Portzierto, ez dezagun ahaztu Oñatin okupatu zela Euskal Herriko lehen gaztetzeara, orain baino askoz okerrago ikusita zeuden garaietan. Hori ere badute bizkarrean!

Beno, goazen harira. Gazte asanbladak tarteka Oñatiko taldeen bildumak ekoiztu eta kaleratzen ditu *Oñati bizirik* izenpean, batzuetan aurkezpen soila-ekin eta besteetan dotoreagoarekin

(oraingoa oso dotore!), baina beti musikariei, eta horien artean hasiberriei, bozgorailua eskainita. Bosgarren bildumako hamazazpi kantuak orain arte argitaragabeak dira eta guztiak grabatu dira Antixena Gaztetzearan egokitutako estudioan. Gainera, edizio honetan, Antixenakoek beste gaztetzeari batzuetan taldeentzat kontzertuak antolatzen dituzte. Chapeau!

Gassius Clay-ren post-rock-hardcore saminduak zabaldu du lana, eta gerora garatu. Ingumak, aldiz, punk-Oi!a aldarrikatu du irmo. Estolda-ren punk melodiko biziak Heriotza taldea zena gogora ekarri dit. Autoreerrotua bakarlarri egokritiko eta bustia da. Zentzu Okerra oraindik kutsatu gabeko lokaleko punka.



## OÑATI V-IZIRIK ASKOREN ARTEAN AUTOEKOIZPENA

Sukenak oso presente dauka Sorkun. Aiert folka, tentsioa eta talentua. Lehen Lerroa Alemanian familia daukan street-punk indartsua. Malko (hard) rock melodiko eta sarkorra. Hamarratz-i esker Mauriziak eta erromeriak badaukate oraina eta etorkizuna. Lee Kore gogor dator metal-core minkorrarekin. Letagin-ek Kuraia-ren suzko lekukoa darama gainean. Larru Beltzak punk itsaskorra da. Osaba Kimu, aldiz, punk zirikatzailea. Jarraian datoz Aitor Regueiro bakarlarria, triki-rockaren aldarri Lizartxo, Repix Ft. Exhile-ren techno eta elektronika, eta bukatzeko, irratsaio labor bezain dibertigarria.

Berezikiak? Bai. Irudimentsu eta ekimen zaleak ere bai. ●



# Independentsia Israeli esker (zientzia-fikziozko komedia bat)

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**R**ealpolitik-a oso ondo e, baina zientzia-fikziozko politika ez zaio atzean geratzen. Eta tarteka produzitzen ditu eszenak, zuek, gizakiok, sinetsiko ez zenituzketenak. Erasoko ontziak sutan Oriongo lepotik gertu; C izpiak dizdizka Tannhäuserko atean; diputatu israeldar bat, palestinarren aurkako genozidio beatean, eztabaida eskatzen Euskal Herriaren independentsiari buruz –baita Kataluniarena, Galiziarena, Andaluziarena, Valentziarena, Aragoirena eta Kanariar eta Balear Uharteena ere: indartsu esnatzea zer den–.

Espainiako Gobernuak estatu palestinarra onartuko duela iragarri ondorengo karanbola da: Sharren Hasketek, Israelgo parlamentuan lau diputatu dauzkan Tikva Hadashá (Esperantza Berria) alderdiko ordezkariak, pasa den astean argitaratu zuen Benjamin Netanyahu zuzendutako gutuna, zeinean eskatzen dion gaia mahai gainean jar dezala hurrengo ministroen kontseiluan. Ondoren gertatu dena, tira, kuriozkoa izan da. Espainiako eskuineko hedabideek eman diote txaranga ozenena pres-tidigitazio-ariketa horri, oso zuzenak ez diren informazioak publikatuz globoa pixka bat puztu beharrez –kartarik gabe botatako hordagoa delako, esan beharrik ez dago–.

Hemen berriz, ez dut inor oso bero sumatu asuntuearekin. Tokitan daude garai bateko abertzaleek Israel miresten zuten garaiak. Andima Ibiñagabeitiak berak ere, mila lan eta ekintzarengatik gogoratua izatea merezi duen idazle eta euskaltzaleak, utzi zituen lerro batzuk *Euzko Gogoa*-n, gaur egundik irakurrita tripako mina ematen dutenak: “Juduek, gizaldi honetako miraria, herri baten miraria burutu dute. Lehor zena, hezetu; elkorra loreztatu, hila berpiztu. Mahometarrek oin zakarrez ihartua, israeldar-

rrek lan eta arteziaz berriz ere bizkortu dute. Aberri bat eraiki dute geroaren itxaro betea, eta hainbeste nahigaberen ondoren joria. Hutsa zegoena bete dute. Lantegi, soro oparo eta hiri ederrez jantzi dute. Xinaurrien lana hutsa duzue haienaren ondoan. Hilik zetzan heberkera, Israelgo semeen ezpainetan berpiztu dute eta hor dabil hegalaria juduen aberria zeharo beretuz. Jarraibide galanta euskotarrak...” eta abar.

Aspaldiko kontuak dira eta, fikziozko ariketekin jarraituz, gustatuko litzaidake jakitea zer pentsatuko lukeen Ibiñagabeitiak gaur egungo Israeli buruz. Baina are gusturago jakingo nuke zer pasako litzatekeen, karanbola are toxikoagoen ondoren, horrelako planteamenduren bat serio samarra izatera iritsiko balitz. Israelenganako rolo ona ez baitzen amaitu gerraosteko abertzale batzuek estatu sionistaz beren buruetan osatu zuten irudi zerutiarrarekin. Gauza konkretuagoak nagusitu dira, hori da dena: hortxe daukazu Apartheid Trenaren kasua edo EAEko poliziak han jaso-

tako entrenamenduez hitz egiten duten informazioak.

Kontua da, justu harreman horiek eduki dituzten Euskal Herriko agenteak –hitzaren bi zentzuetan: 1) agente ekonomikoak; 2) uniformedun agenteak– ez direla asko motibatu izan Euskal Herriaren independentsiarekin. Ez, definitiboki ez dirudi beraien ametsik handiena izan denik –edo bestela oso ondo disimulatu dute–. Eta, beraz, estatu propioa lortzeko aukera israeldarrak zientzia-fikziotik bezainbeste edukiko luke komediatik, elkarrizketa honekin hasi eta bukatuko bailitzateke:

–Kaixo, ni naiz, Isra. Zure independentsia babestera nator.

–Bueno, ehm... Detaile bat da zure aldetik, baina...


–Zer gertatzen da?

–Nola esango dut hau zu mindu gabe...? Problema da...

–Ni naiz? Umeak hiltzen ditudala? Al-datuko naiz.

–Ez zara zu, benetan. Ni naiz. Hau ez da harreman honetatik espero nuena. ●





Prezioa **17 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
**BIZUM** bidez ordaindu daiteke.

**azoka.argia.eus** (+34) **943 37 15 45**



# Nork kontatzen dizu mundua?

